

EXERCICIO
IZPIRITUALA


INRI

N-5000009366
ZRV
3381

EXERCICIO

IZPIRITUALA

JAUN APHEZPICUAREN SECRETARIO

Daranatz Calonjeac

APHAINDUA

BAIONAN

FIRMIN SÉRIS

BAITAN BAKARRIK SALTCEN DENA

Cathedraleco carrican, 7.

Propriété réservée

BAIMENA

FRANÇOIS - XAVIER - MARIE - JULES GIEURE, misericordia dibinoaz eta Alkhi Saindu Apostolicoaren autoritatez Baionaco Aphezpicuac :

Iracurri ondoan Jaun Serisec egin deraucun galdea berriz imprimatzeco *Exercicio Izpirituala* Baionaco diosesacotzat.

Gure baia eman dugu eta hemen emaiten galdegileari obra hunen imprimatzeari buruz, begiztatu dugun liburua bezala izaitecotan eta biga lehenic ezartzecotan Aphezpicutegico liburutegian.

Baionan emana gure sinaduraren, gure armen zigiloaren eta gure secretarioaren sinaduraren azpian maiatzaren lauean, 1919.

† FRANÇOIS-MARIE
Baionaco-Aphezpicua.

Jaun Aphezpicuaren manuz :
LASSERRE, *Calonje, Secretario jenerala.*

GOIZECO OTHOITZA

Diosesaco Catichiman Ekharria

Etcheco guziec elgarrekin egin behar luketena

AITAREN, ETA SEMEAREN, ETA IZPIRITU SAINDUAREN IZENEAN HALABIZ.

Orholt gaitezen Jaincoaren aintzinean garela eta adora dezagun Adorazionezco Acta batez.

ADORAZIONEZCO ACTA

JAINCO guziz botheretsua, Aita, Semea eta Izpiritu Saindua, zoinac creatu bainauzu zure ezagutzeco eta maithatzeco ahalarekin, huna non nagon umilki zure aintzinean belhaunca. Ezagutzen dut ene miseria eta ezdeustasuna; adoratzen zaitut gauza guzien Creatzailea eta Nausi Soberanoa bezala.

Jauna, sinhesten dut zu baithan zeren egia bera baitzare; esperantza dut zu baithan, zeren guziz ona baitzare; maite zaitut ene bihotz guziaz, ene arima guziaz, ene indar guziez, zeren baitzare osoki maithagarria.

Zer bihurtuco derautzut, Jauna, zu ganic errezibitu ditudan ongi-egin guzientzat ? Deus ez dut zure jenerostate handiari zor ez diotanic. Eskerrac deraitzut berezeki zeren creatu nauzun, bekhatutic erosi, egiazco fedeaz argitu, ea egundaino contserbatu, egiazco Aita baten artha guziarekin.

Hemen contsideratu behar da ze grazia egin deraucun Jaincoac, egun hau gure salbamenduan trabailatzeco emanez ; eta hunen sainduki iragaiteco chede zin bat hartu.

Orhoitu behar da zoin diren maizenic egiten diren hutsac ; aintzinetic ikhusi bekhaturat deramaten ocasioneac, eta deliberazione hartu halaco bekhatutic eta ocasionetic urruntzeco. Hortacotz egon behar da hemen aphur bat ichilic.

IKHUSTEN ditutzu, Jauna, ene bihotzaren azken pleguetarainoco guziac, eta bereziki memento huntan hartzen ditudan deliberazione sainduac ; bainan ezagutzen duzu halaber ene flakezia : nota begira naiteke bekhatutic zure laguntza

gabe ? Jainco guziz botheretsua, salba nezazu ; emadatzu, othoi, ene arimaren etsaiari bihurtzeco eta bekhatuan erori gabe egun hunen iragaiteco behar ditudan indarrac. Egizu zure graziaz, ene pentsamenduac, hitzac, obrac, sofricarioac, oro zure lege sainduaren arabera izan diten. Halabiz.

GURE Aita zeruetan zarena, erabil bedi sainduki zure izena, et hor bedi zure erresuma ; egin bedi zure borondatea, zeruan bezala lurrean ere ; iguzu egun gure eguneco ogia ; barkha zagutzu gure zorrac, guc gure ganat zordun direneri barkhatzen dioztegun bezala eta ez gaitzatzula utz tentamendutan erortzerat ; bainan begira gaitzatzu gaitzetic. Halabiz.

AGUR Maria, graziaz bethea, Jauna da zurekin ; benedicatua zare emazte guzien artean, eta benedicatua da zure sabeleco fruitua, Jesus.

Maria Saindua, Jaincoaren Amaegizu othoitz gu bekhatorosent

zat, orai, eta gure heriotzeco orenean. Halabiz.

SINHESTEN dut Jainco Aita bothere guzia duena baithan, zeruaren eta lurraren Creatzailean; eta Jesu Christo haren Seme bakhar gure Jauna baithan: zoin contzebitu baitzen Izpiritu-Sainduaren berthutez; sorthu zen Maria Birjina-ganic; pairatu zuen Pontzio Pilatusen manuaren azpian; khurutzeficatu zuten; hil cen eta ehortci zuten: jautsi zen infernuetarat; hirurgarren egunean jaiki zen biziric hilen artetic; iragan zen zeruetarat; jarria dago Jainco Aita bothere guzia duenaren escuinean; handic ethorrico da bizien eta hilen juyatzerat. Sinhesten dut Izpiritu Saindua baithan, Eliza catolica Sainduan, Sainduen partaliertasunean, bekhatuen barkhamenduan, haragiaren phiztean, bethi iraunen duen bizitzean. Halabiz.

COFESATZEN natzaio Jainco Aita bothere guzia duenari, Maria bethi Birjina dohatsuari, Mi-

cael Arcanjelu dohatsuari, Joanes-Batista dohatsuari, Petri eta Paulo Apostolu Sainduei, Saindu guziei, eta zuri ene Aita, zeren egin baitut sobera bekhatu gogoz, hitzez eta obraz; ene faltaz, ene faltaz, ene fala handiaz. Hortacoz othoitz egiten diot Maria bethi Birjina dohatsuari, Micael Arcanjelu dohatsuari, Joanes-Batista dohatsuari, Petri eta Paulo Apostolu Sainduei, Saindu guziei, eta zuri, ene Aita, egin dezozuen enetzat othoitz gure Jainco Jaunari.

JAUNAREN Aingerua, Jaincoaren Probidentziac nitaz artha hartzeco establitu zituen gidari leyala, othoi bida nazazu eta gaitzetic begira, egun eta ene bizico oren guziez. Halabiz.

Birgina Maria Saindua, zuec Aingeru onac, ene Patroin Saindua, eta Saindu guziac, balia zazkitet Jaincoaren aintzinean. Hil direnen arimac bakean pausa daitezela. Halabiz.

JESUSEN IZEN SAINDUAREN

LITANIAC

(300 *egunen indulientzia*).

KYRIE, eleison.
Christe, eleison.
Kyrie, eleison.
Jesu audi nos.
Jesus, exaudi nos.
Pater de Cœlis, Deus, miserere nobis.
Fili, Redemptor mundi, Deus,
Spiritus Sancte, Deus,
Sancta Trinitas, unus Deus,
Jesu Fili Dei vivi,
Jesu splendor Patris,
Jesu candor lucis æternæ,
Jesu Rex gloriæ,
Jesu sol justitiæ,
Jesu Fili Mariæ Virginis,
Jesu amabilis,
Jesu admirabilis,
Jesu Deus fortis,
Jesu Pater futuri sæculi,
Jesu magni consilii Angele,
Jesu potentissime,
Jesu patientissime,

Miserere nobis

JESUSEN IZEN SAINDUAREN

LITANIAC

(300 *egunen indulientzia*).

JAUNA, urrical zakizkigu.
Jesu-Christo, urrical zakizkigu.
Jauna, urrical zakizkigu.
Jesu-Christo, adi gaitzazu.
Jesu-Christo, entzun gaitzazu.
Aita zeruetacoa, Jainco zarena,
Semea, munduaren Eroslea, Jainco zarena,
Izpiritu Saindua, Jainco zarena,
Trinitate Saindua, Jainco bakar bat zarena.
Jesus, Jainco biziaren Semea,
Jesus, Aitaren argia,
Jesus, bethiereco argiaren distiadura,
Jesus, loriazco erregea,
Jesus, zuzentasunezco iguzkia,
Jesus, Maria Birjinaren Semea,
Jesus, maithagarria,
Jesus, miragarria,
Jesus, Jainco indartsua,
Jesus, ethorkizuneco mendearen aita,

Jesu obedientissime,
Jesu mitis et humilis corde,
Jesu amator castitatis,
Jesu amator noster,
Jesu Deus pacis,
Jesu auctor vitæ,
Jesu exemplar virtutum,
Jesu zelator animarum.
Jesu Deus noster,
Jesu refugium nostrum,
Jesu pater pauperum,
Jesu thesaure fidelium,
Jesu bone Pastor,
Jesu lux vera,
Jesu sapientia æterna,
Jesu bonitas infinita,
Jesu via et vita nostra,
Jesu gaudium angelorum,
Jesu Rex Patriarcharum,
Jesu Magister Apostolorum,
Jesu Doctor Evangelistarum,
Jesu fortitudo Martyrum,
Jesu lumen Confessorum,
Jesu puritas Virginum,
Jesu corona Sanctorum omnium,
Propitius esto, parce nobis, Jesu.
Propitius esto, exaudi nos, Jesu.
Ab omni malo, libera nos, Jesu.
Ab omni peccato, libera nos.
Jesu,

Miserere nobis

Jesus, contseilu handico Aingerua,
Jesus, guziz puchanta,
Jesus, guziz pairacorra,
Jesus, guziz obedienta,
Jesus, bihotzez eztia eta humila,
Jesus, garbitasunaren maithatzailea,
Jesus, bakezco Jaincoa,
Jesus, biziaren emailea,
Jesus, berthuteen moldea,
Jesus, arimen bilhari khartsua,
Jesus, gure Jaincoa,
Jesus, gure ihes-lekhua,
Jesus, erromesen aita,
Jesus, fededunen tresora,
Jesus, Artzain ona,
Jesus, egiazco argia,
Jesus, bethiereco zuhurtzia,
Jesus, ontasun mugarrigabea,
Jesus, gure bidea eta bizia,
Jesus, Aingeruen bozcarioa,
Jesus, Patriarken Erregea,
Jesus, Apostoluen Nausia,
Jesus, Ebanjelisten Irakhaslea
Jesus, Martiren indarra,
Jesus, Cofesoren argia,
Jesus, Birjinen garbitasuna ,
Jesus, Saindu guzien khoroa,
Fagora gaitzazu, barkha diezaguzu, Jesus!

Ab ira tuâ libera nos, Jesu.
Ab insidiis diaboli, libera nos, Jesu.
A spiritu fornicationis,
A morte perpetua,
A neglectu inspirationum tuarum,
Per mysterium sanctæ incarnationis tuæ,
Per nativitatem tuam,
Per infantiam tuam,
Per divinissimam vitam tuam,
Per labores tuos,
Per agoniam et passionem tuam,
Per crucem et derelictionem tuam,
Per languores tuos,
Per mortem et sepulturam tuam,
Per resurrectionem tuam,
Per ascensionem tuam,
Per gaudia tua,
Per gloriam tuam, libera nos, Jesu.

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, parce nobis, Jesu.

Agnus Deii qui tollis peccata mundi, exaudi nos, Jesu.

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, miserere nobis, Jesu.

Jesu, audi nos.

Jesu, exaudi nos.

Fagora gaitzazu, entzun gaitzazu, Jesus!
Gaitz guzietaric, libra gaitzazu, Jesus!
Bekhatu guzietaric,
Zure hasarreduratic,
Debruaren amarruetaric,
Lohikeriaco izpiritutic,
Bethiereko heriotze gaichtotic,
Zure gogoramenduen alderaco ezacholatasunetic,
Zure Incarnazione sainduco misterioaz,
Zure sortzeaz,
Zure haurtasunaz,
Zure bizitze guziz Jaincozcoaz,
Zure nekheez,
Zure hagoniaz eta pairamenaz,
Zure gurutzeaz eta utzimenduaz,
Zure akidurez,
Zure heriotzeaz eta ehorzteaz,
Zure phizteaz,
Zure zerurat igaiteaz,
Zure bozcarioez,
Zure loriaz,

Libra gaitzazu Jesus

Jaincoaren bildotsa, munduco bekhatuac khentzen dituzuna, barkha diezaguzu, Jesus!

Jaincoaren bildotsa, munduco

OREMUS

Domine Jesu Christe, qui dixisti : Petite et accipietis, quærite et invenietis, pulsate et aperietur vobis, quæsumus, da nobis petentibus divinissimi tui amoris affectum, ut te toto corde, ore, et opere diligamus, et à tua nunquam laude cessemus :

Sancti nominis tui, Domine, timorem pariter et amorem fac nos habere perpetuum, quia nunquam tua gubernatione destituis, quos in soliditate tuæ dilectionis instituis. Qui vivis et regnas in sæcula sæculorum. Amen.

bekhatuac khentzen dituzuna, entzun gaitzazu, Jesus!

Jaincoaren bildotsa, munduco bekhatuac khentzen dituzuna, urrical zakizkigu, Jesus!

Jesus, adi gaitzazu.

Jesus, entzun gaitzazu.

OTHOITZA

JESU-CHRISTO gure Jauna, zeinac erran baituzu: galda zazue eta errezebituco duzue: bilha zazue eta causituco duzue: jo zazue eta idekico zautzue: othoi iguzu, gure galde huntara, zure amodio guziz Jaincozcoaren sentimenduac laudatzetic ez gaitezen seculan geldi; amoreagatic eta zu biliotz guziz, hitzez eta obraz maita zaitzagun eta zure laudatzetic ez gaitezen seculan geldi:

Jauna, zure izen sainduaren beldurra eta amodioa emazu izan ditzagun betan, zeren eta zure amodioan finki gogortzen dituzunac ez baiditutzu zure escupetic urruntzen: Zuc mendeen mendetan bizi zarenac. Halabiz.

Igandetan erranen dire Jaincoaren eta Elizaren Manamenduac.

JAINCOAREN MANAMENDUAC

1. JAINCO bat adora zazu
   Halaber maitha osoki.
2. Juramenturic zuc ez duzu
   Ez zinic eginen banoki.
3. Igandeac begira zatzu,
   Jauna ere zerbitza debotki.
4. Aita eta Ama ohora zatzu
   Bizi zaitezen luzeki.
5. Nehor obraz hilen ez duzu,
   Ez borondatez gaichtoki.
6. Paillardiza eginen ez duzu,
   Obraz ez gogoz likhiski.
7. Bertzerena ebatsico ez duzu,
   Ez atchikico injustuki.
8. Lekhuc otasunic ez duzu,
   Ez hitz erranen faltsuki.
9. Bertzeren espocis ez duzu
   Desiratuco lizunki.
10. Gutizia izanen ez duzu
    Bertzeren onaren gaizki.

ELIZAREN MANAMENDUAC

1. Meza Saindua entzun-ezaru
   Besta Igandetan debotki,

2. Eta Bestac begira zatzu,
   Manamenduzcoac sainduki.
3. Bekhatuac cofesa zatzu,
   Urthean behin osoki.
4. Gorphutz Saindua errezebi zazu,
   Phazcoz bederen umilki.
5. Garthac, Bijiliac, barur zatzu
   Garizuma ere osoki,
6. Ortziralean janen ez duzu
   Ez mehe egunetan haragi.

ARRATSECO OTHOITZA

Aitaren eta Semearen eta Izpiritu Sainduaren izenean. Halabiz.

Orhoit gaitezen Jaincoaren aintzinean garela eta adora dezagun Adorazionezco Acta batez

Adorazionezco Acta

JAINCO guziz botheretsua eta eternala, Aita, Semea, eta Izpiritu Saindua, zoina baitzare lekhu guzietan, jiten nitzauzu ene adorazionen eta ohoren bihurtzerat, gaurco descantsuaren hartzerat joan baino lehen.

ADORATZEN zaitut, ene Jaincoa, maite zaitut; laudatzen eta benedicatzen zaitut. Zu zare Jainco urricalpenez bethea; Jainco contsolatzailea, egiazco dohain guzien ithurria. Eskerrac deraitzut, ahalaz humilki, egin deraiztatzun ongi guziez, eta bereziki egun huntacoez.

BAINAN nola ihardetsi dut, Jauna, zure ontasun izarigabecoari ?

Ala esker gaichtoz pagatu baitzaitut hambat bekhatutan eroriz, bethi ongi egiten hari zinaitan demboran!

JAUNA, argi zazu ene izpiritua, ezagut ditzadan ene bekhatuen nombrea eta handitasuna; bero zazu ene bihotza zure amodioaren suaz, damu egiazco bat izan dezadan zu ofentsaturic.

Hemen ikhusi behar da egun zer bekhatu egin den, gogoz, hitzez, obraz edo egin behar zena ez eginez, nahiz lagunaren, nahiz bere buruaren contra; baratzen delaric particulaski maizenic egiten diren bekhatuez orhoitzen.

AITHORTZEN ditut, Jauna, zure aintzinean ene bekhatuac; orotaz barkhamendu escatzen derautzut, Jesu-Christoren berthutez. Hastiatzen ditut, zeren zure ofentsac diren, eta hitzemaiten derautzut, zure graziarekin batean, urrunduco nizela hemendic aintzina bekhatutic eta bekhatuaren ocasionetic, eta eginen dudala orotaz penitentzia.

CONFITEOR Deo omnipotenti, beatæ Mariæ semper Virgini, beato Michaeli Archangelo, beato Joanni-Baptistæ, sanctis apostolis Petro et Paulo, omnibus Sanctis, et tibi, Pater, quia peccavi nimis cogitatione, verbo et opere: meâ culpâ, meâ culpâ, meâ maximâ culpâ. Ideo precor beatam Mariam semper Virginem, beatum Michaelem Archangelum, beatum Joannem Baptistam, sanctos apostolos Petrum et Paulum, omnes Sanctos et te, Pater, orare pro me ad Dominum Deum nostrum.

Misereatur nostri omnipotens Deus et, dimissis peccatis nostris, perducat nos ad vitam æternam Amen.

Indulgentiam, absolutionem et remissionem peccatorum nostrorum, tribuat nobis omnipotens et misericors Dominus. Amen.

PATER noster, qui es in cælis, sanctificetur Nomen tuum; adveniat regnum tuum; fiat voluntas tua sicut in cælo et in terrâ; panem nostrum quotidianum da no-

bis hodie, et dimitte nobis debita nostra, sicut et nos dimittimus debitoribus nostris; et ne nos inducas in tentationem, sed libera nos a malo. Amen.

AVE Maria, gratiâ plena; Dominus tecum; benedicta tu in mulieribus, et benedictus fructus ventris tui, Jesus.

Sancta Maria, Mater Dei, ora pro nobis peccatoribus, nunc et in horâ mortis nostræ. Amen.

CREDO in Deum, Patrem omnipotentem, Creatorem cæli et terræ; et in Jesum Christum Filium ejus unicum, Dominum nostrum; qui conceptus est de Spiritu Sancto, natus ex Maria Virgine: passus sub Pontio Pilato, crucifixus; mortuus et sepultus; descendit ad inferos, tertiâ die resurrexit à mortuis, ascendit ad cælos, sedet ad dexteram Dei Patris omnipotentis; inde venturus est judicare vivos et mortuos.

Credo in Spiritum Sanctum, Sanctam Ecclesiam Catholicam, sanctorum communionem, remis-

sionem peccatorum, carnis resurrectionem, vitam æternam. Amen.

OTHOIZTEN zaitut, Jauna, zure benedizioneac eta graziac ichur ditzazun gure Aita Sainduaren, gure Jaun Aphezpicuaren, gure aintzindarien gainerat, halaber ene ahaide, adiskide, etsai, eta jeneralean ene othoitzetarat zerbait dretcho duketen presuna guzien gainerat. Gida gaitzazu othoi guziac salbamenduco bidean.

Othoizten zaitut ere, Jauna, Purgatorioetaco penetan diren arimentzat; emozute bere bekhatu guzien barkhamendua eta sarrarazkitzu hambat lehiarekin igurikitzen duten egoitza dohatsuan. Escatzen derautzut Jesu-Christo gure Jaunaz, zoina bat baita zurekin eta Izpiritu Sainduarekin, mende eta mende guzietaco bizitzean Halabiz.

Birjina Saindua, Jaincoaren Ama, othoitz egizu enetzat; zuec, Aingeru onac eta Saindu guziac, balia zaizkitet; ene Aingeru begirale Saindua, zaude atzarria ene inguruetan.

Jainco guziz botheretsu eta urricalpenez betheac, Aita, Seme eta Izpiritu-Sainduac, digutzila gau ezti bat eta heriotze dohatsu bat. Halabiz.

Dembora denean erran ditezke Birjina Sainduaren Litaniac.

ANDREDENA MARIAREN

LITANIAC LATINEZ

(300 *egunen indulientzia*)

KYRIE, eleison.
Christe, eleison.
Kyrie, eleison.
Christe, audi nos.
Christe, exaudi nos.
Pater de cælis, Deus, miserere-nobis.
Fili, Redemptor mundi, Deus, miserere nobis.
Spiritus sancte, Deus, miserere nobis.
Sancta Trinitas, unus Deus, miserere nobis.
Sancta Maria, ora pro nobis.
Sancta Dei Genitrix,
Sancta Virgo virginum,
Mater Christi,
Mater divinæ gratiæ,
Mater purissima,
Mater castissima,
Mater inviolata,
Mater intemerata,
Mater amabilis,

Ora pro nobis.

ANDREDENA MARIAREN

LITANIAC ESCUARAZ

(300 *egunen indulientzia*)

JAUNA, urrical zakizkigu.
Jesu-Christo, urrical zakizkigu.
Jauna, urrical zakizkigu.
Jesu-Christo, adi gaitzazu.
Jesu-Christo, entzun gaitzazu.
Alta zeruetacoa, Jainco zarena, urrical zakizkigu.
Semea, munduaren Eroslea, Jainco zarena, urrical zakizkigu.
Izpiritu Saindua, Jainco zarena, urrical zakizkigu.
Trinitate Saindua, Jainco bakhar bat zarena, urrical zakizkigu.
Maria Saindua, othoitz egizu guretzat.
Jaincoaren Ama saindua,
Birjinen Birjina saindua,
Jesu-Christoren Ama,
Grazia dibinoaren Ama,
Ama guziz chahua,
Ama guziz garbia,
Ama bekhaturic izatu ez duzuna,

Mater admirabilis,
Mater boni consilii,
Mater Creatoris,
Mater Salvatoris,
Virgo prudentissima,
Virgo veneranda,
Virgo prædicanda,
Virgo potens,
Virgo clemens,
Virgo fidelis,
Speculum justitiæ,
Sedes sapientiæ,
Causa nostræ lætitiæ,
Vas spirituale,
Vas honorabile,
Vas insigne devotionis,
Rosa mystica,
Turris Davidica,
Turris eburnea,
Domus aurea,
Fœderis arca,
Janua cæli,
Stella matutina,
Salus infirmorum,
Refugium peccatorum,
Consolatrix afflictorum,
Auxilium Christianorum,
Regina Angelorum,
Regina Patriarcharum,
Regina Prophetarum,

Ora pro nobis

Ama notharic izatu ez duzuna,
Ama maithagarria,
Ama miragarria,
Contseilu oneco Ama,
Creatzailearen Ama,
Salbatzailearen Ama,
Birjina guziz zuhurra,
Birjina guziz ohoragarria,
Birjina laudagarria,
Birjina botheretsua,
Birjina amultsua,
Birjina leiala,
Justiziaren miraila,
Zuhurtziaren tronua,
Gure bozcarioaren causa,
Untzi izpirituala,
Untzi ohoragarria,
Untzi eder Jaincotiartasunecoa,
Arrosa misteriozcoa,
Daviten dorrea,
Dorre borthitza,
Urrezco palazioa,
Bakearen arca,
Zeruetaco portalea,
Goizeco izarra,
Erien osasuna,
Bekhatoreen ihes-lekhua,
Doloratuei gozo emailea,
Giristinoen laguntza,
Aingeruen erregina,

otloitz egizu guretzat

Regina Apostolorum,
Regina Martyrum,
Regina Confessorum,
Regina Virginum,
Regina sanctorum omnium,
Regina sine labe originali concepta,
Regina sacratissimi Rosarii,
Regina pacis,

Ora pro nobis.

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, parce nobis, Domine.
Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, exaudi, nos Domine.
Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, miserere nobis.

℣. Ora pro nobis, sancta Dei Genitrix.

℟. Ut digni efficiamur promissionibus Christi.

OREMUS

GRATIAM tuam, quæsumus, Domine, mentibus nostris infunde, ut qui, Angelo nuntiante, Christi Filii tui incarnationem cognovimus, per Passionem ejus et Crucem ad resurrectionis gloriam perducamur. Per eumdem Christum Dominum nostrum. Amen.

Othoitz egizu guretzat

Patriarken erregina,
Profeten erregina,
Apostoluen erregina,
Martiren erregina,
Cofesoren erregina,
Birjinen erregina,
Saindu guzien Erregina,
Erregina bekhatu originalic gabe contzebitua,
Arrosorio guziz sacratuaren erregina,
Bakearen erregina,

Jaincoaren bildotsa, munducc bekhatuac khentzen dituzuna barkha dizaguzu, Jauna.
Jaincoaren bildotsa, munduco bekhatuac khentzen dituzuna, entzun gaitzazu, Jauna.
Jaincoaren bildotsa, munduco bekhatuac khentzen dituzuna, urrical zakizkigu.

℣. Othoitz egizu guretzat, Jaincoaren Ama saindua.

℟. Jesu-Christoren agintzez merezdun bilhaca gaitezen.

OTHOITZA

O JAUNA! othoitzen zaitugu ahalic umilkiena zure graziaren bidatzeaz gure bihotzetara: gu zeinec, Aingeruaren erranez, ezagutu baitugu Jesu Christo zure Semearen incarnazionea; hel gaiten haren pasionearen merezimenduez berriz phiztearen loriara. Jesu Christo gure Jaun beraren fagorez. Halabiz.

Fedezco Acta

ENE Jaincoa, sinhesten ditut zinez eta ene bihotz guziaz, Eliza Catholico, Apostolico eta Erromanoac, sinhesten eta iracasten dituen gauza guziac; zeren zuc, egia bera zarenac, iracatsi baiterazcotzu.

Esperantzazco Acta

ENE Jaincoa, esperantza dut sinheste fermu batekin, emanen derautazula, Jesu-Christoren merezimenduen berthuthez, mundu huntan zure grazia, eta zure manamenduei jarraikitzen banaiz, bertzean zure loria; zeren hitzeman

baituzu eta baitzare zure hitzetan osoki leiala.

Caritatezco Acta

ENE Jaincoa, maite zaitut ene bihotz guziaz eta gauza guzien gainetic; zeren baitzare guziz ona eta osoki maithagarria; maite dut halaber ene laguna ene burua bezala zure amorea gatic.

SAN BERNATEN OTHOITZA ANDREDENA MARIARI

ORHOIT zaite, Birjina Maria guziz urricalmendutsua, ez dela egundaino aditu, nihor zure gerizarat ihes egin duenic, zure laguntza galdegin duenic, zure arartecotasuna escatu duenic, izan dela zure laguntzaric gabe utzia. Fidantzia beraz sustatua nic ere zure ganat, Birjina, Birjinen Ama, laster egiten dut, zure ganat heldu naiz, bekhatorosa auhenez nago zure aintzinean. Etzazula, Jainco Semearen Ama, ene othoitzac arbuia, bainan bai entzun fagorezki eta onhets. Halabiz. (300 eg. ind. aldi bakhotch. Pio IX, Uzta il. 25 an 1846).

ONGI COFESATZECO MOLDEA

COFESIONE on batec lau condizione hehar ditu.

Lehena da *Preparazionea*: Erran nahi da, entseatu behar zarela ongi zure bekhatuez orhoitzerat. Preparazione hori hain da baitezpadacoa, non hori gabe, ez baitu zure cofesioneac deusic balio, eta, cõntzientzia ongi etsaminatzeco faltaz, uzten baduzu bekhatu mortal bat erran gabe, bekhatu mortal berri bat egiten duzu.

Bigarrena da *Contrizionea*. Erran nahi da, behar duzula izan zure bekhatuez damu eta urriki, eta gehiago bekhaturic ez egiteco chede fermu bat.

Hirúrgarren condizionea da *Cofesioa*. Erran nahi da, behar dituzula zure bekhatuac osoki aithortu; baldin batere gordetzen baduzu mortalic, sacrileioa egiten duzu, eta bethierecotz galtzeco bidean jartzen zare.

Laugarrena da *Satisfazionea*. Erran nahi da, penitentzia bethe behar duzula artha bandi batekin,

ahalic lasterrena; eta baldin zure cofesorac manatzen bazaitu nihori satisfazioneric egitera, ohorean, intresetan edo bertze moldez bidegabe eginic, behar duzu nori berea bihurtu.

Bekhatuez orhoitzeco egiteco Othoitza.

O ARGIEN Jaincoa! mundurat heldu diren gizon guziac argitzen dituzuna, ene adimendua argi zazu zure argiaz; eta ene bihotza zaurt zazu zure amodio ofentsatuaren urrikiaz zure contra egin ditudan bekhatuen ezagutzeco, hetaz dolore izaiteco, eta hekien ongi agertzeco. Birjina Saindua, Jaincoaren Ama, bere combersionearen egiteco nahia duten presuna guzien alderat hain misericordios zarena, eta ene esperantza maitea, othoi, fagora nezazu eta ardiets diezadazu grazia Jaincoaren contra egin ditudan hutsen ezagutzeco: eta zuec, parabisuco Saindu eta Saindac, egizue enetzat othoitz, egin dezadantzat penitentziari dagozkion obrac.

CONTZIENTZIAREN ETSAMINA

Jaincoaren lehen manamenduan

ZEMBAT dembora du cofesatu zarela eta absoluzione izan duzula ?

Aintzineco cofesioetan utzi duzu ahalgez edo beldurrez cofesatzeco zombait bekhatu ?

Egin duzu azken penitentzia ? Egin tutzu zure othoitzac ? Aztietan ibili zare ? Bertzeac igorri ? Mintzatu zare erlijione sainduaren contra, aphezen contra, edo atseginekin mintzatzen aditu ? Trufatu zare debozionezco pratikez ? debozionezco presunez ? Fedearen contra bekhatu egin duzu : erlijioneco egia zombaitez dudatuz zure baithan ? erlijioneco egien contraco solasac atchikiz ? trufatuz erlijioneco gauzez ? onhartuz erlijionearen contra mintzo zirenac ? liburu edo cazeta tzarrac iracurtuz ? Ahalge izan zare Jaincoaren zerbitzatzeco ? Murmuratu duzu Jaincoaren zerbitzatzeco ? Murmuratu duzu Jaincoaren contra ?

Bigarren manamenduan

BURHO madarizioneric egin duzu ? Baduzu arnegu egiteco costuma ? Justizian besoa altchatu duzu gezurraren gainean ? Justiziaz campo ere, zin edo juramentu egin duzu gzurrez ? Egin duzu boturic arinki, eta nola begiratu ? errespeturic gabe erabili duzu Jaincoaren eta Jesusen izen saindua ? Gaizki mintzatu zare Jaincoaz edo Sainduez ?

Hirurgarren manamenduan

IGANDE bestetan huts egin edo gaizki entzun duzu meza saindua zure faltaz, lazakeriaz ? Meza huts eginarazi diozute bertzeri ? Egin duzu orduan lan debecaturic, behar gabe ? Nola pasatu ditutzu egun saindu hec ? Ostatuan ? Compainia edo libertimendu tzarretan ? Nola jarraiki zare elizaco offizioei eta guziz predicuei ?

Laugarren manamenduan.

COLPATU duzu zure aita amei, nausi etcheco-andrei zor zinuen errespetua, obedientzia, laguntza ?

Burhasoa, nola altchatzen ditutzu haurrac ? Nola othoitzac eginarazten, correitzen, plegu onac emaiten, Jainco legea eracusten ? Ez duzu sobera libro uzten ume gazte hura, nahi duen lekhuetarat, nahi duen lagunekin, galtzeco lanjeric handienean ?

Zer artha duzu zure sehiez, zure menecoez ?

Bortzgarren manamenduan

NEHORI egin duzu minic ? Samurtu, hasarretu zare norbaitekin ? Atchiki duzu berraric, beharric gabe agertu duzu hertzen hutsic ? Nehoren ohoreari calte egin duzu medisentziaz edo calomniaz ? Unionean bizi zirenac makhurtu ditutzu elgarrekin, edo makhurtuac zirenac gehiago nahasi zure salhatzèz ? Eman duzu nehori contseilu gaichtoric, escandalic, bekhatu egiteco bideric ? Desiratu duzu nehori hiltzea edo zerbait gaitz ?

Seigarren eta bederatzigarren manamenduetan

BEKHATU egin duzu manamendu horien contra ? — Gogoz : gogoe-

ta tzarrac, gutizia gaichtoac zure nahitarat gogoan atchikiz ? Hitzez : solas edo ichtorio itsusiac erabiliz, edo atseginekin entzunez, edo ichilarazi behar bidean, errai-terat utziz ; cantu tzarrac cantatuz ? Obraz : Behatze, ukitze edo bertze zembat egitate desonest zure gainean edo bertze norbaiten gainean, egin edo errezibitu duzu, emaztekia emaztekiarekin edo gizonkia gizonkiarekin izanic ere ? Adiskidetasun sobra libroac, libertinen compainiac, dantzac, eta urrundanic ere garbitasunaren colpatzera ekhar detzaketen libertimenduac zure nahiz bilhatu ditutzu ? Potret figura, imaia eta bertze zer nahi den gauza desonesti atseginekin behatzen diozute ? Amodioz mintzo diren liburuac iracurtu ditutzu ? Modestia gutirekin beztitu zare ? Elgarren desoneskeriez ezcontzaren saindutasuna colpatu duzu ? Zer egin duzu bertze presunekin, zure buruarekin, ahaidekin, ezconduekin, bertze zer nahirekin ? Galdegin zazu ongi zure contzientziari, eta ez gorde bekhatu horietaric batere,

Zazpigarren eta hamargarren manamenduetan

EBATSI duzu edo desiratu ebastea ? Nihor enganatu duzu tratuetan, edo enganatzerat entseatu ? Bertzerena atchiki duzu zuzen contra ? Egin duzu norbaiti calteric ? Etzaude zure lazakeriaz zorren pagatzeco, egin makhurren chuchentzeco ? Ez duzu lagundu ebasten ; sustatu bertzeri calte egiterat zure contseiluez ? Gauza causitua zuretu duzu ?

Zortzigarren manamenduan

BADUZU gezur erraiteco costuma ? Zure gezurrec egin dute calteric ? Justizian, altchatu duzu besoa gezurraren, dudazco gauza baten fincatzeco, zor baten ukhatzeco ? Norbaiti atsegin egiteco zerbitzatu zare lekhuco faltsutzat ? Zerbait calte eginic izan denean, ez duzu arinki pausatu zure juyamendua holacoaren gainean, eta norbaiti erran ? Secretua salhatu duzu ? Nehor gaizki juyatu duzu ?

Elizaren Manamenduetan

Cofesatu gabe urthe osoa pasatu duzu ? Phazcoac huts egin ditutzu ?

Nola pasatu ditutzu bestac ? Adinetarat helduz geroz, barur manaturic hautsi duzu, egiten ahal zinuelaric ?

Mehe egunetan, egin duzu gizen arrazoinic gabe, lazakeriaz, ahalgez ?

Bekhatu Capitalac

Urgulua. — Baduzu urguluric ? Etzare bezti zure heinac emaiten duen baino ederkiago ? Zerentzat daucazu zure burua ? Etzare arras minbera, berehala sumindua ?

Abarizioa. — Etzare sobera estecatua diruari, lurreco ontasunei ? ez duzu escasian uzten zure familia bihotz-gogortasunez ? Etzare gogor langilentzat, jende beharrentzat, pobrentzat ?

Bekhaizkeria edo jelosia. — Pena duzu bertze bat zu baino gorago ikhusiz ? Atsegin duzu bertzen aphaltasunaz, bertzen erortzeaz ? Jelosia horrec etzaitu ascotan

mintzarazten ? ez duzu calte eginarazi langile hari, tratulant hari, ezcontza hasi hari ?

Gormandiza. — Hartu duzu edo eman jan-edan soberacoric ? Ez ditutzu gormandizetan, pesta egiten chahutu zure haurentzat, zure familiacotzat beharrac ?

Colera. — Zombat aldiz utzi duzu nausitzera colera zure baithan ?

Alferkeria. — Etzare alferra, lazoa Jaincozco, arimaco gauzetan ? Dembora galdu duzu alferkeriaz ?

Ikhus zazu bertzalde nola bethe ditutzun zure estatuco eginbideac.

Bekhatuez orhoitu ondoan bihotzeco dolore handi batekin, zeren Jainco on hura ofentsatu duzun, egizu Contrizionezco Acta.

ENE Jaincoa, Jainco handia, Jainco ona, Jainco maithagarria, ene Nausia, ene Aita, hufna non naizen zure aintzinean ahuspez, zuri ene bekhatuez barkhamendu galdetzeco.

Bekhatorosa naiz, alabainan bekhatoros handia. Eta ene bekhatuez, zer laido eta atsegabe ez

dautzut egin, Jauna! Guziz ederra zare, guziz maithagarria; zu zare ontasun guziez gaineco ontasuna. Badakit hori, sinhesten dut. Eta bizkitartean, bertze zerbeit zu baino maiteago eta nahiago izan dut!

Bai, bekhatu mortala egin badut, bekhatu mortala egin dutan aldi guziz, zu alde batetic eta gauza debecatu bat, gauza tzar bat bertzetic, gauza hura zu baino nahiago izatu dut: ezen banakien gauza haren gatic, zu galduco zintudala. Eta galdu zaitut, ene Jaincoa! Zu baino maiteago izan dut bekhatua, zu baino maiteago debrua: ezen, bekhatuaz ene bihotzetic canpo ezarri zaitut, eta zure ordain debrua dut sarrarazi adichkidetzat eta nausitzat: Zer laidoa, mezprezioa, zer desohorea zuretzat! Eta horiec guziac ene ganic!

Damu dut, Jauna, handizki damu egin dutanaz, damu ene bekhatu mortal guziez. Barkhamendu galdetzen dautzut bihotzaren erditic. Ochala ez banitu egin! Haste balitz, ez nituzke segur egin nahi! Ukho egiten diotet beraz bekhatu

mortal guzieri, ukho bekhatuzco ocasioneri. Bethi eta zernahi gerta, zurekin adichkide egon nahi dut, eta agian, zure graziaren laguntzarekin, hala egonen naiz bethi ?...

Damu dut Jauna, handizki damu egin dutanaz, damu ene bekhatu mortal guziez. Barkhamendu galdetzen dautzut bihotzaren erditic. Ochala ez banitu egin ! Haste balitz, ez nituzke segur egin nahi ! Ukho egiten diotet beraz bekhatu mortal guzieri, uko bekhatuzco ocasioneri. Bethi eta zernahi gerta, zurekin adichkide egon nahi dut, eta agian, zure graziaren laguntzarekin, hala egonen naiz bethi !...

Andredena Mariari egiteco othoitza

33 *garen plaman.*

ZOAZ gero cofesatzerat, umiltasun eta modestia handi batekin. Apheza contsidera zazu Jesu-Christoren presuna bera bezala ; ezen haren lekhua dauca. Jar zaite bellhaunico, eta modeski begiac beheratuac, Aphezari bisaiarat begirat-

zen ez diozula ; zeina zaite, eta errazu : *Aita benedica nezazu, zeren egin baitut bekhatu :* eta errazu gero *Confiteor...* escuaraz edo latinez.

COFESATU ONDOAN

Eskerren bihurtzeco Acta

ONE Jaincoa, eta Aita urricalmendutsua ! ez dakit nola zure amodio handiari eskerrac eman, haren ganic errezibituric heldu naizen onthasun handiez. Ez, ez naiz ni gai hari dagotzan bezalaco ezagutzaric emaiteco, zure Seme maitearen merezimendu neurrigabe eta miragarrien bidez baizen. Beraz hec berac escaintzen darozkitzut, ene Jaincoa, ene ezinaren orde, eta presentatzen darozkitzut halaber Birjina Sainduaren merezimenduac ere, Profeta, Patriarca, Apostolu, Martir, Cofesor, Birjina eta hitz batez zeruco gorthe guziarenac. Ene Creatzaile maitea, nahi nuke banu hambat mihi nola baita zeruan eta lurrean creatura, guziac emplegatzeco zu-

ri eskerren ematen, zure laudatzen eta glorificatzen.

Egizu gero zure penitentzia; contrizionezco acta bat berriz eginic, zoaz bakean etcherat, gogoan erabiliz zure cofesoraren abisuac.

COMUNIONE SAINDUA

CONTSIDERA zazu zure-ganat *nor* heldu den: heldu dela zerua, lura eta gauza guziac creatu dituen Jainco, Mayestate handitaco hura, zeinaren aintzinean Aingeruac eta Serafinac ikharan baitaude.

Contsidera zazu gero *noren ganat heldu den:* zure ganat, zeina ez baitzare hautsa eta herrautsa baizen, zeinac hambat ofentsatu baituzu hura.

Hirurgarrenic, contsidera zazu *zertarat heldu den:* zure ganat heldu dela zuri bere grazien ichurtzerat; heldu dela amodioz bera osoki zuri ematerat.

Contsidera zazu azkenecotz *zein nesesario zaitzun Jaincoaren errezebitzea.* Zeren hura baita zure animaren hazcurria, zure eritasunetaco erremedioa eta tentazioneen contraco indarra.

COMUNIONE AINTZINECO OTHOITZAC

ENE Jainco ona, zeronec egun deitzen nauzu zure-ganat, zure inspirazionez ene bihotza berotzen duzula, zure errezebitzeco desira handi eta khartsu batez. Ohore eta ontasun handi hori egin nahi darotazunaz geroz, zato beraz eta ene arima zeronec prepara diezadazu halaco moldez, zure nahitarat perfetki goza dezazuntzat, zoronec egin eta formatu duzun obra ; eta nic ere nere aldetic iduki zaitzadan nere bihotzaren gainean Jaincozco zigilu bat bezala.

Fedezco acta. — Jesus Jauna, gorphutzeco begiez icusten bazintut baino hobeki sinhesten dut, oso osoa aurkhitzen zarela ostia sainduan.

Adorazionezco acta. — Jesus Jauna, adoratzen zaitut ogiaren itchuran gordea ; zu zare egiazki ene Jaincoa.

Humiltasunezco acta. — Jesus Jauna, ez naiz gai ene bihotzean sar zaiten, hanbat bekhatu egin

dudan ondoan ; bainan errazu choilki hitz bat eta ene bihotza sendatua izanen da.

Esperantzazco acta. — Jesus Jauna, esperantza dut, ni baitan egoiterat ethorriz, ene arima garbituco duzula, eta sustatuco zure amodioaz.

Urrikizco acta. — Jesus Jauna, guziz maithagarria, handizki damu dut ene bekhatuez egin dauzkitzudan laidoez ; othoi, barkha ; zinzinez hitz dautzut, zure graziarekin batean, bethi eta gauza guzietan eginen dudala zure nahi saindua.

Amodiozco acta. — Jesus Jauna, zembat maite nauzun ! Nahi nauzu zure haragiaz eta odolaz hazi. Ah ! nic ere maite zaitut, maite ene bihotz guziaz, ene indar guziez. Nahi naiz bizi eta hil zure amodioan.

Gutiziazco acta. — Zato beraz, Jesus Jauna, zato ene ganat ; zato, egon zaite ni baitan eta egin zazu nitaz nahi duzuna. Zurea naiz, zuri gootgic ematen natzaizu, osoki aet bethicotz.

Errazu gero Confiteor, *eta hiruetan*

JAUNA, ez naiz ni digne zure errezebitzeco; bainan errazu hitz bat eta ene arima sendatua izanen da.

COMUNIONE ONDOCO OTHOITZAC

Adorazionezco acta. — Jesus Jauna, zeru lurren nausia, adoratzen zaitut ene bihotzean; adoratzen aingeruekin, eta zeruco eta lurreco sainduekin batean; adoratzen bereziki Andredena Mariarekin batean.

Esker-Onezco acta. — Jesus Jauna, eskerric minenac dauzkitzut, ni ganat ethorri nahi izan duzulacotz comunione sainduan. Ordainez, zer egin dezaket zuretzat ?

Emaitzazco acta. — Jesus Jauna, ematen natzaizu osoki eta naizen guzia, zu niri eman zaren bezala; egidazu grazia, zuretzat baizic ez bizitzeco.

Amodiozco acta. — Jesus Jauna, nabi zaitut ahalaz maithatu; phitzazu zeronec ni baitan zure amodioa, eta amodio garbi horren

suac bero, erre, suntsi beza ene bihotza.

Galdezco acta. — Jesus Jauna, emadazu, othoi, zure manamendu sainduen begiratzeco behar ditudan grazia guziac.

Chede zinezco acta. — Jesus Jauna, hartzen dut chede zinzina, zuc hastio dituzun gauza guzietaric begiratzeco, eta egiteco ene ganic galdegiten dituzun guziac. Egidazu zure maithatzeco grazia, bai bizi naizeno mundu huntan, bai hil ondoan zeruan, bethiereco zorionean. Halabiz.

HUNA O JESUS ONA

Othoitz hau gurutzefica baten aintzinean erranez (hor berean duzu gurutzefica) indulientzia oso bat i rabazten da, egunean behin, cofesatuz, comuniatuz, eta Aita Sainduaren chedetarat othoitz zerbeit eginez. Indulientzia hori irabaz ditake nahi bada, purgatorioko arimen fagoretan.

Huna, o Jesus ona eta guziz eztia, non naizen zure aintzinean belhaunico emana; eta arimaco khar handienarekin othoizten zaitut eta errekeritzen, barna sar detzazun ene bihotzean fedezco, esperantzazco eta caritatezco sentimenduric bizienac, ene bekhatuen egiazco urrikia, eta gehiago ez egiteco chederic hazcarrena;

nic, bihotzeco amodio eta min handi batekin, zure bortz zauriac ene baitan icusten ditudalaric eta gogoan erabiltzen, begien aintzinean atchikiz zutaz Dabid profetac zure ahoan ezartzen zituen hitz hauc, O Jesus ona : « Zilatu dituzte ene escuac eta ene oinac ; condatu ene hezur guziac. »

Zembeit Gure Aita eta Agur Maria erraitzu Aita Sainduaren chedetarat.

SAN THOMASEN OTHOITZA

Eskerrac derauzkitzut, Jaun Saindu, Aita guziz botheretsu, Jainco bethierecoa, ni bekhatoros zure sehi herbaila, ez batere nic merezituric, bainan zure urricalmenduzco nahi choilaz, Jesu-Christo zure Seme gure Jaunaren gorphutz baliosaz eta odolaz nasaiki hazi nahi izan nauzuna. Eta othoitzten zaitut, comunione saindu hau ez dakidan izan gaztigua darraicon hoben bat, bainan bai barkhamendua dakharken ararteco salbagarri bat. Eman bezo indar ene chede onac. Agor betza ene bizioac, ene jaidura eta khar gaichtoac

ezezta, ene caritatea eta pazientzia, humilitatea eta obedientzia, eta berthute guziac emenda; ene etsai guzien, ala agerien, ala gorden amarruetaric zain nazala; geldiaraz detzala osoki bai ene gorphutzeco bai ene arimaco jauzteac; zu ene Jainco bakhar eta egiazco zarenarekin tinki lot nazala, eta deitua naizen zorionaz bethicotz gozaraz Halaber othoiztèn zaitut, ni bekhatorosa helaraz nazazun mahain ezin-errauezco hartarat, non zu, zure Semearekin eta Izpiritu-Sainduarekin baitzare zure sainduentzat egiazco argia, asetze osoa, bozcario bethierecoa, zorion gaindizcacoa, eta dohatsutasun osoen osoena. Ber Christo gure Jaunaz. Halabiz.

CHRISTOREN ARIMA

(*Othoitz hau erranez irabazten dire*: 300 *egunetaco indulientzia, aldi guziz; zazpi urthetacoa behin, comuniatu ondoan; osoa hilabethean behin, cofesatuz, comuniatuz eta Aita Sainduaren chedetarat othoitz eginez*).

Christoren arima, saindu nazazu.

Christoren gorphutza, salba nazazu.

Christoren odola, bero nazazu.

Christoren Pasionea, hazcar nazazu.

O Jesus ona, entzun nazazu.

Zure zaurien barnean, gorde nazazu.

Zu ganic berechterat utz ez nazazu.

Etsai gaichtotic begira nazazu.

Nere hiltzeco orenean deit nazazu.

Eta zure ganat ethortzea mana iezadazu.

Zure sainduekin batean zure goresteco.

Menderen mendetan. Halabiz.

Erraitzu abitu urdineco sei Gure Aita, sei agur Maria eta sei Gloriac, purgatorioco arimen fagoretan.

OTHOITZ INDULIENTZIA DUNAC

O ene Jaincoa eta ene guzia. (50 *eg.*)

Ene Jesus, misericordia. (100 *eg.*).

Jesus, ene Jaincoa, maite zaitut guzien gainetic (50 *eg.*)

O Jesus, guziz eztia, ez zaitela izan ene Yuyea, bainan ene Salbatzailea. (50 *eg.*)

Ene Jesusen bihotz eztia, egizu maitha zaitzadan geroago eta gehiago. (300 *eg.*)

Mariaren bihotz eztia, izan zaite ene salbamendua. (300 *eg.*)

Benedicatua izan bedi Birjiña Māria Jaincoaren Ama dohatsuaren contzebizione saindu eta notha gabea. (300 *eg.*)

Jesus bihotzez ezti eta humila, egizu ene bihotza zurea bezalacoa. (300 *eg.*)

Jesusen Bihotz Sacratua, gutaz urrical zaite. (100 *eg.*)

Mariaren bihotz notha gabea othoitz egizu guretzat. (100 *eg.*)

O Maria, bekhaturic gabe contzebitua, othoitz egizu gu zure ganat oihu egiten dugunentzat. (100 *eg.*)

O San Josep, Jesusen Bihotz Sacratuaren adiskidea, othoitz egizu guretzat. (100 *eg.*)

Egizu, o Josep, gure bizia gar-

biki iragan dadin, eta begira gaitzazu bethi zure gerizan. (300 *eg.*)

Jesus, Maria, Josepe, emaiten dautzuet ene bihotza, ene adimendua eta ene bizia. Jesus, Maria, Josepe, lagun nezazue ene azken agonian. Jesus, Maria, Josepe, hil nadila eztiki zuen compainia sainduan. (300 *eg.*)

Ene Jaincoa, sinhesten dut zu baithan, zeren egia bera baitzare. Ene Jaincoa, maite zaitut, zeren baitzare osoki maithagarria, eta maite dut ene laguna neure burua bezala zure amorea gatic (7 *urth. eta 7 berrog.*)

Aita bethierecoa, escaintzen dautzut Jesu Christoren odol guziz preziatua, ene bekhatuen erreparazionetan, eta Eliza sainduaren beharrentzat. (100 *eg.*)

Birjinen begiratzailea eta Aita, San Josep, zeinaren artha leialari gomendatua izan baita inozentzia bera den Jesus Jauna, eta Maria, birjinen Birjina, othoizten zaitut eta errekeritzen bi bahi guziz maite hetaz, Jesusez eta Mariaz,

likhizkeria guzietaric begira nazazun eta gogoa argi dudalaric, bihotza chahu, gorphutza garbi, bethi Jesus eta Maria zerbitza detzadan garbitasun osoenarekin. Halabiz (100 *eg.*)

Laudatua eta adoratua izan bedi Jesu-Christo gure Jauna, zeruan eta aldareco sacramendu sainduan ; orai eta bethiere.

MEZA SAINDUCO OTHOITZAC

Meza hasi aintzinean erran behar den othoitza.

ZURE aldare sainduaren oinetan ahuspez emanic, adoratzen zaitut, Jainco bothere guziac dituzuna ; fermuki sinhesten dut entzutera nohan meza dela Jesu-Christo, zure Seme Jaincoaren goiphutz eta odolaren sacrifizioa, ofreitzeco moldea hala halaco ez izan arren ; harc berac Calbarioco mendian gizon guzientzat ofreitu zuen sacrifizio hura bera. Egidazu grazia sartzeco, o ene Jaincoa, Aphezaren escuz, hau zuri behar den bezala ofreitzeco behar ditudan sentimenduetan. Ofreitzen darotzut, bat egiten naizelaric Jesu-Christoren eta haren Elizaren chede'kin : 1° Zure mayestate dibinoari zor zaioen adorazione eta ohore soberanoaren bihurtzeco ; 2° egin darozkigutzin on eta ongi guziez eskerren emateco ; 3° munduco bekhatu guzientzat eta bereziki eneentzat zuri satisfazione egiteco ; 4° azkene-

cotz, arimaco salbamenduarentzat eta gorphutzeco biziarentzat behar ditudan laguntzen eta socorrien zure ganic ardiesteco. Gracia hauc guziac uste dut emanen deraiztatzula Jesu-Christo, zure Semearen merezimenduen bidez, zeinac nahi baitu berac izan sacrifizio adoragarri hunen Apheza eta Bictima.

Mezaren hastean, eta Confiteor *errátean.*

ENE bekhatuen jakiteco eta ezagutzeco, o ene Jaincoa, nahiz ez duzun behar ene aithorric eta cofesioric, eta ene bihotzean iracurtzen dituzun, cofesatzen darozkizut halere zeruaren eta lurraren aintzinean; aithortzen dut ofentsatu zaitudala gogoz, hitzez eta obraz. Ene bekhatuac handiac dire; bainan zure misericordiec neurriric ez dute. Urrical nakizu, o ene Jaincoa! orhoit zaite zure escuco obra, zure odolaren prezioa naizela.

Birjina saindua, zeruco Aingeruac, Parabisuco Saindu eta Saindac, guretzat othoitz egizue: eta nigarrezco eta miseriazco harun

huntan dolhamenetan gaudezen orduetan, grazia esca zazue guretzat, eta ardiets diezaguzue bekhatuen barkhamendua.

Introitean

JAUNA, zuc Patriarkei eta Profetei eman diotzozute, zure Seme bakharra lurrerat jausten icusteco hain gutizia khartsuac; indazu heien khar saindutic inhar bat; eta egizu, bizitze hilcor hunen gora beheren erdian, ene baithan senti dezadan zurekin bat izateco lehia saindu bat.

Kyrie eleison.

KYRIE eleison.
Kyrie eleison.
Kyrie eleison.
Christe eleison.
Christe eleison.
Christe eleison.
Kyrie eleison.
Kyrie eleison.
Kyrie eleison.

Gloria in excelsis.

GLORIA in excelsis Deo et in terra pax hominibus bonæ volun-

tatis. Laudamus te. Benedicimus te. Adoramus te. Glorificamus te. Gratiasagimus tibi propter magnam gloriam tuam. Domine Deus, Rex cœlestis, Deus Pater omnipotens. Domine Fili unigenite, Jesu-Christe. Domine Deus Agnus Dei, Filius Patris. Qui tollis peccata mundi, miserere nobis. Qui tollis peccata mundi, suscipe deprecationem nostram. Qui sedes ad dexteram Patris, miserere nobis. Quoniam tu solus Sanctus. Tu solus Dominus. Tu solus Altissimus, Jesu Christe. Cum Sancto Spiritu in gloria Dei Patris. Amen.

Oremus *etan, edo Orazionetan*

AGRADA bekizkitzu, Jauna, guretzat egiten zaizkitzun othoitzac igutzu Eliza zure esposac, aphezaren ahoz, gure fagoretan galdegiten darozkitzun graziac eta berthuteac. Ez dugu merezi (hala da) entzunac izatea: bainan contsidera zazu grazia horiec escatzen darozkitzugula Jesu-Christo, zure Semearen bidez; zeina zurekin biz baita eta erreginatzen baitu mendeen mendetan. Halabiz.

Epistolan

EPISTOLA huni begiratzen diot o ene Jaincoa! zure boroudateac iracasteco egortzen darotazun guthun bati bezala. Othoi, indazu manatzen darotazunaren bethetzeco indarra. Zuc zeronec, Jauna, Profetei eta Apostoluei erran diozotzute iscribuz utzi darozkiguten egiac; heien argietaric pharte indazu eta phitz żazu ene bihotzean, hec erretzen zituen su sacratu hura; maitha zaitzadan eta zerbitza hec bezala, ene bizi guzian.

Ebanjelioan, chutituric

CHUTITZEN naiz, o Lege egile soberanoa! zuri eracusteco Ebanjelio sainduan diren egia handiac, ene odolaz zigilatzerat paratua nagoela. Egia horiec ene bihotzean zeronec, othoi, Jauna, barneraino sarraraz zatzu. Horiec betzate erregela ene gogoetac, ene hitzac eta ene obrac. Ez dut gehiago egin nahi zure erranez bertzeric, mintza zaite, Jauna, huna non aditzen zaitudan sehi baten aphaltasun oso berarekin; indazu zure er-

ranen obratzeco hambat indar, nola baitut zintasun heien sinhesteco.

Credoa

CREDO in unum Deum, Patrem omnipotentem, factorem cœli et terræ, visibilium omnium et invisibilium. Et in unum Dominum Jesum Christum, Filium Dei unigenitum. Et ex Patre natum ante omnia sæcula. Deum de Deo, lumen de lumine, Deum verum de Deo vero. Genitum, non factum, consubstantialem Patri, per quem omnia facta sunt. Qui propter nos homines, et propter nostram salutem descendit de cœlis. Et incarnatus est de Spiritu Sancto ex Maria virgine, et HOMO FACTUS EST. Crucifixus etiam pro nobis sub Pontio Pilato, passus et sepultus est. Et resurrexit tertia die secundum Scripturas. Et ascendit in cœlum, sedet ad dexteram Patris. Et iterum venturus est cum gloria judicare vivos et mortuos; cujus regni non erit finis. Et in Spiritum Sanctum Dominum et vivificantem; qui ex Patre Filioque procedit

Qui cum Patre et Filio simul adoratur et conglorificatur ; qui locutus est per Prophetas. Et unam, sanctam, catholicam, et apostolicam Ecclesiam. Confiteor unum baptisma in remissionem peccatorum. Et exspecto resurrectionem mortuorum, et vitam venturi sæculi. Amen.

Ofertorioan

NAHIZ creatura hilcor eta bekhatuz estali bat baizic ez naizen, es caintzen darozkitzut Aphezaren escuz, o egiazco Jainco bizi eta bethierecoa, ogi hori eta arno hori, zeinac izan behar baitute gambiatuac zure Seme Jesu-Christoren gorphutzerat eta odolerat. Errezebi zazu, ene Jauna, ezin errazco sacrifizio hau amultsuki eta gozoki, eta onhetsazu escaintza saindu horri junta diozadan ene gorphutzaz, arimaz, onthasunez, biziaz, eta ditudan guziez egiten darotzudan sacrifizioa. Egizu nitaz, o ene Jaincoa, creatura berri bat ; ogi hori eta arno hori zure bothereaz gambiatzerat dohazen bezala.

Aphezac bere erhiac garbitzean

GARBI nazazu, Jauna, sacrificatua izatera dohatzun, Bildotsaren odolean; notha guzietaric chahutua eta zure graziaren espos-arropaz aphaindua, zure ganat escuchuri eta bekhatu gabeac altcha detzadan, eta esperantza izan egun batez errezebitua izateco zure hautatuei Zeruan paratu diozuten apairu sacratuan.

Aphalki Aphezac erraten dituen othoitzetan

AGRADA bekizu, o ene Jaincoa, zure izen sainduaren ohoretan eta loriarentzat, gure abantailetan eta zure Eliza sainduarenetan, ofreitzen zaitzun sacrifizioa; chede beretan sarthuric, huna non galdetzen darozkitzudan, Elizac orai Aphezaren bidez escatzen darozkitzun grazia guziac: hortaracotz bat egiten naiz Aphezarekin, hec eman dietzagutzun nasaiki, Jesu-Christo gure Jaunaren bidez.

Prefazioan

ORDU da, o ene arima ! altcha gaitezen behere huntaco gauza guziez gorago. Altcha zatzu, Jauna, altcha zatzu gure bihotzac zure ganat : utz gaitzatzu zor zaizkitzun laudorioen eta eskerren bihurtzeco junta detzagun gure boz ahulac, Izpiritu dohatsuen alegrantziazco eta bozcariozko cantuekin, eta desterruco lekhu huntan erran diezaguzun hec loriaren egoitzan cantatzen darotzutena : *Saindua, Saindua, Saindua da armadetaco Jainco Jauna : Izan bedi lorificatua Zeruetaco gorenean.*

Sanctus, sanctus, sanctus Dominus Deus Sabaoth. Pleni sunt cœli et terra gloria tua. Hosanna in excelsis. Benedictus qui venit in nomine Domini. Hosanna in excelsis.

Sanctus *erran ondoan*

AITA bethierecoa, artzainen Artzain guziz handia, zure Eliza begira eta bida zazu, finca zazu, eta heda lurraren bazter guzietarat. Izpiritu bat eta bihotz bat emozute

Christau guziei. Benedica zazu gure Aita saindua, gure Aphezpicua, gure Aintzindariac, gure Erretora, eta zure Elizaren sinhestean bizi diren guziac.

Lehembizico Mementoan

JAUNA, orai zure erresuman zarena, orhoit zaite nitaz zure misericordian; eta sacrifizio saindu hunen merezimenduz indatzu behar ditudan berthute guziac. Eta batac bertzearentzat othoitz egitea manatu darocuzunaz geroz, Jauna, othoi, adi zatzu; eta entzun humilki eta confidentziarekin egiten darozkitzudan othoitzak ene ahaidentzat, adiskidentzat, arimaco eta gorphutzeco ongi egilentzat. Ene bihotz guziaz halaber gomendatzen darozkitzut ene etsaiac eta tratamendu gaichto zembait egin ahal darotaten guziac; ahantz bekizkitzu heien bekhatuac eta nereac: ene bihotzetic khen zatzu khirastasun eta gaitzirizco guziac; eta lehiaraz diezadazu eta ardietsaraz heien amodioa. Mundu guziac senti beza Sacrifizio hunen ona. O ene Jaincoa! iguzu gu-

ziei bake egiazco bat zeinac, elgarrekin batasunean atchikitzen gaituela, bethicotz baigaitu batasunean emanen Birjina amarekin, zure Apostoluekin eta azkenean eternitate guzian zurekin.

Aphezac Calitzaren eta Ostiaren gainean escuac zabalduac daduzcanean.

HEDA zazu, Jauna, ene gainera zure escu dibinoa, ene bihotzaren eta ene sentsuen jabe sar nadin ; ene baithan chuchentzeco zure contra den guzia, ni contsecratzeco zure Aita Jaincoari zurekin eta zutaz eta ni bide hortaz libratzeco debruaren escuetaric eta bethicotz galtzetic.

Ostia saindua altchatzean

O JESUS, ene Salbatzailea, egiazco Jaincoa eta egiazco Gizona, sinhesten dut zinez eta fermuki Ostia sainduan errealki zarela : adoratzen zaitut hor, ene Jauna eta Jaincoa bezala. Iguzu niri eta hemen garen guziei, misterio ado-

ragarri huntan zor darotzugun debozionea, amodioa eta ezagutza.

Calitza altchatzean

ADORATZEN dut Calitz hortan, o ene Jesus dibinoa, ene eta gizon guzien erospenaren saria. Odol adoragarri hortaric chorta bat jausterāt utz zazu ene arimaren gainera, izan dadintzat, garbitua bekhatu guzietaric, eta sustatua zure amodioaren khar sacratuaz.

Jaun handia altchatu ondoan.

EZ darotzugu gehiago ogia eta arnoa ofreitzen, bainan bai Jesu-Christo zure Semearen gorphutz adoragarria, o ene Jaincoa! haren pasionearen, phiztearen, eta zerurat igaitearen orhoitzapenetan gure escutic, Jauna, errezebi zazu, eta bethe gaitzatzu zure graziez.

Bigarren Mementoan

ORHOIT zaite halaber, Jauna, Purgatorioan diren arima gaichazure adiskideac eta zure hauten-

dira. Bereziki gomendatzen darozkitzut ene ahaideenac, adiskideenac, arimaco eta gorphutzeco ongi egileenac eta othoitz beharra gehien dutenac.

Nobis quoque peccatoribus
erratean

GUZIA bekhatore naizelaric, ausartatzen naiz galdetzera grazia bera enetzat; erran nahi da, o ene Salbatzailea! zure lorian pharte ttipi bat. Mila bekhatuz hango zuzena galdu dudala icusten dut eta aithortzen zure aintzinean, o ene Jaincoa! Ene merezimenduei begiratzen badiozute, ez duket esperantzaric aurki nadin Erresuma hartan, zeinetarat Apostoluec, Martirec eta Birjina sainduec ezin ardietsi baitute heltzea, hainitz sofrituz eta berthute giristinozco guziac obretan emanez baizen. Nola beraz ausarta ere othe naiteke, Jauna, esperantza izaterat? Barkha dietzadatzu ene hutsac eta penaentzia egiazco batez egin nazazu zure erresumarat heltzeco merezdtn

Pater erratean

CREATURA ez deus eta dohacabe bat baizic ez naizen arren, halere Jainco handia! ausartatzen naiz zu ene Aita deitzerat, zeren hola nahi duzun; egidazu grazia, o ene Jaincoa! zure haur gisa ibil nadin bethi. Izan bedi zure izena santificatua zeru-lurretan. Erregina zazu orai beretic zure graziaz ene bihotzean, zurekin erregina dezadantzat eternitatean, zure borondatea bethe dezadantzat lurrean, sainduec bethetzen duten bezala zeruan. Ene Aita zare; indazu beraz, othoi, zeruco ogi hura, zeinetaz hazten baiditutzu zure haurrac. Barkhamendu eman diezadazu nic zure amoreac gatic bihotz onez ofentsatu nautenei ematen diotedan bezala, eta ez dezazula onhets nihoiz tentamendu batec ere garhait nezan; aitzitic zure graziaz lagunduric, egizu bentzu detzadan ene salbamenduaren etsai guziac

Agnus Dei, qui tollis pecca mundi, miserere nobis.

Agnus Dei, qui tollis pecca mundi, miserere nobis.

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, dona nobis pacem.

Agnus Dei *erratean*

JAINCOAREN Bildotsa, munduco bekhatuez cargatu nahi izan duzuna, garbi datzu eta itho nic egin guziac zure odolean, hain cario erosi duzun bakea izateco merezdun bilhaca nadintzat. Indazu bake hura zurekin, bake hura protsimoarekin, bake hura nere buruarekin: sarrarazten nauzularic humiltasun osoenean; eta ene baithan ithotzen ditutzularic mendecuzco nahicunde guziac:

Domine non sum dignus *erratean*

HA Jauna! sobera baizen ez da egia ez dudala merezi zure errezebitzea; higuingarri bilhacatu naiz osoki ene bekhatuez: guziez urriki dut eta dolore, zeren damustatu baitzaituzte; eta zure ganic urrundu bainaute. Zure hitz bakhar batec senda dezake ene arima: o ene Jaincoa! errazu hitz on hura, eta izanen naiz sendatua.

Aphezaren comunionean norc berac comuniatzen ez duenean errealki

O ENE Jesus maithagarria ! egun zure haragi sainduaz hazia izateco zoriona ez badut, sofri zazu errezebi zaitzadan bederen izpirituz eta bihotzez : eta zurekin bat egin nādin fedeaz, esperantzaz, eta caritateaz : Sinhesten dut zure baithan ; zure baithan dut ene esperantza, eta maite zaitut ene bihotz guziaz. Ala dohatsu baininteke, ene Salbatzaile maitea, zure ganat hurbiltzeco, zure mahain sainduan jartzeco, zure Gorphutz sacratua errezebitzeco, eta zure ganat hurbiltzeco, eta zure Odola edateco estatuan banintz ! Ah ! zer atsegin, zer gozagarri, zembat grazia ez diozute emaiten hetaz haztен ditutzunei !

† *Norc berac comuniatzen duenean, horren orde egin behar ditu comunioneraco Actac.*

Ostia ondarrac Aphezac bilizean.

JAUNA, zure graziaric mendreena hainitz baliosa da ; ja erran dut,

ez dut merezi zure mahainean zure haurren lerroan jartzea ; baiian utz nezazu biltzerat bederen erortzen diren purruscac, Cananearrac galdetzen zautzun bezala. Egizu ez dezadan zure grazietaric batere galtzerat utz ; ezen bide hortaz ekarria zintezke ene uzterat gauza guzien escasian.

Postcomunionean

AKHABATU dire guziac, o Jauna ! ene begien aintzinean izan zare sacrificatua. O ene Jaincoa ; ez naiz nihoiz geldituco zuri laudoriozco sacrifizioa bihurtzetic : eta guziz, bihotz zu ofentsaturic doloratu, zaurtu eta humiliatu baten sacrifizioa ofreitzetic.

Azkeneco Orazionetan

NAHI duzu Jauna, arteric utzi gabe gure bihotzac altcha dietzatzugun, zeren dugun bethi zure grazien beharra. Ichur zazu gure gainerat, eta iguzu othoitzaren izpiritua, zeina baita humiltasunezco, confidentziazco eta amodiozco izpiritu bat : hortaz errekeritzen

zaitugu Jesu-Christo zure Semeaz, zeinac zurekin erreginatzen baitu lorian.

Benedizionearen aintzinean

TRINITATE guziz saindu eta adoragarria, Aita, Semea, eta Izpiritu Saindua, Jainco choil eta bakhar bat zarena; zutaz 'sacrifizio hau hasi dugu, zutaz akhabatzen dugu: agrada bekizu, eta indaguzu zure benedizionea.

Azken Ebanjelioa errateau

BERBO eternala, gauza guzien Egilea, demborac bethe zirenean gure gatic Gizon eginic, Sacrifizio miragarri hau establitu duzuna; eskerrac humilki bihurtzen darozkitzugu zeren egin darocuzun grazia meza hunen entzuteco, hunen ondorio salbagarriac errezebi detzaguntzat. Aingeru eta Saindu guziec hortaz lauda bezaitzate bethi zeruan, eta gu has gaitezen zu hortaz benedicatzen, lurrean ibiltzen garelaric egungo egunean zure legearen arabera. Barkha diezadazu, o ene Jaincoa! ene izpiritu-

co barraiamendua eta ene bihotzeco hoztasuna, zutaz bethea eta zuretzat sustatua izan behar zuten dembora hortan. Ahantz bekizkitzu, Jauna, ene bekhatuac, zeinentzat Jesu-Christo zure Semea, aldare hunen gainean sacrificatzetic heldu baita: eta ez dezazula onhets aski ondicozcoa izan nadin, zure hemendic harat ofentsatzeco; bainan egizu, zurekin ibiltzen naizelaric, bethi begira diezazudan ene gogoeten, ene hitzen, eta ene obren erregelari eta azken finari bezala. Halabiz.

MEZAREN AKHABANTZACO CANTICA

AINGERU batec Mariari,
Dio graziaz bethea
Salbatzaile dibinoari
Emanen diozu sortzea.

Jaincoaren nahi saindua
Ni baithan dadin egina
Izan nadina amatua
Bainan geldituz birjina.

Orduan Berbo dibinoa
Gorphutz batez da beztitzen.
Oi onthasun egiazcoa,
Jauna gurekin egoiten.

Othoitz zazu zure Semea,
Gure ama amultsua,
Izan dezagun fagorea
Ardiesteco zerua.
Othoitza, beherachago bezala.

ANGELUS

JAUNAREN Aingeruac berria ekharni zion Mariari, eta contzebitu zuen Izpiritu Sainduaren ganic.

Agur, Maria.

Huna Jaincoaren nescatoa ; egina izan bedi zure hitzaren arabera.

Agur, Maria.

Eta Jainco Semea gizon egin da, eta egotu da gu-tartean.

Agur, Maria.

Othoitz egizu guretzat, Jaincoaren Ama Saindua.

Christoc hitzemanac merezi detzaguntzat.

OTHOITZA

Zure grazia, othoi Jauna, gure arimetarat ichur-azu, amoreagatic eta Aingeruac mezuturic, Christo zure Semearen gizon egitea ezagutu dugunac, haren Pasionearen eta gurutzearen bidez, Phiztearen loriarat hel gaitezen. Ber Christo gure Jaunaz. Halabiz.

BESTA PRINTZIPALETACO OFIZIOAC

ANDREDENA MARIAREN MEZACO

Introita

SALVE, sancta Parens, enixa puerpera Regem, qui cœlum terramque regit in sæcula sæculorum. Ps. Eructavit cor meum verbum bonum: dico ego opera mea Regi. Gloria Patri. Salve.

Orazionea. Concede nos famulos tuos, quæsumus, Domine Deus, perpetua mentis et corporis sanitate gaudere: et gloriosa beatæ Mariæ semper Virginis intercessione, a præsenti liberari tristitia, et æterna perfrui lætitia. Per Dominum.

Lectio Isaiæ Prophetæ

AB initio, et ante sæcula creata sum, et usque ad futurum sæculum non desinam, et in habitatione sancta coram ipso ministravi. Et sic in Sion firmata sum, et in civitate sanctificata similiter re-

quievi, et in Jerusalem potestas mea. Et radicavi in populo honorificato, et in parte Dei mei hæreditas illius, et in plenitudine Sanctorum detentio mea.

Graduela. Benedicta et venerabilis es, Virgo Maria, quæ, sine tactu pudoris, inventa es Mater Salvatoris. Virgo Dei Genitrix, quem totus non capit orbis, in tua se clausit viscera, factus homo.

Alleluia, alleluia. Post partum, Virgo, inviolata permansisti: Dei Genitrix, intercede pro nobis. Alleluia.

Ebanjelioa

DENBORA hartan, Jesus populueri mintzo zelaric, emazteki batec, solastuz jendeen erditic, erran zioen: Zorionezcoa zu ekharri zaituen sabela, eta zuc egoski ditutzun bulharrac. Eta Jesusec ihardetsi zuen. Dohatsuago Jaincoaren hitza entzuten, eta bigaratzen dutenac.

Ofertorioa. Ave Maria, gratia plena, Dominus tecum; benedicta tu in mulieribus, et benedictus fructus ventris tui.

Secreta. Tua Domine, propitiatio-

ne, et beatæ Mariæ semper Virginis intercessione, ad perpetuam atque præsentem hæc oblatio nobis proficiat prosperitatem et pacem. Per Dominum.

Comunionea. Beata viscera Mariæ Virginis, quæ portaverunt æterni Patris Filium.

Postcomunionea. Sumptis, Domine, salutis nostræ subsidiis, da quæsumus, beatæ Mariæ semper Virginis patrociniis nos ubique protegi, in cujus veneratione hæc tuæ obtulimus Majestati. Per Dominum nostrum Jesum Christum.

Andredena Mariaren Bezperetaco psalmoac.

EGUERRI EGUNEAN MEZAN

Introita

PUER natus est nobis, et filius datus est nobis, cujus imperium super humerum ejus: et vocabitur nomen ejus, magni consilii Angelus. *Ps.* Cantate Domino canticum novum: quia mirabilia fecit. Gloria Patri. Puer.

Orazionea. Concede quæsumus,

omnipotens Deus: ut nos Unigeniti tui nova per carnem nativitas liberet, quos sub peccati jugo vetusta servitus tenet. Per eumdem Dominum.

Lectio Epistolæ beati Pauli Apostoli ad Hebræos

MULTIFARIAM, multisque modis olim Deus loquens patribus in Prophetis; novissime diebus istis locutus est nobis in Filio, quem constituit hæredem universorum, per quem fecit et sæcula; qui cum sit splendor gloriæ, et figura substantiæ ejus, portansque omnia verbo virtutis suæ, purgationem peccatorum faciens, sedet ad dexteram majestatis in excelsis; tanto melior Angelus effectus, quanto differentius præ illis nomen hæreditavit. Cui enim dixit aliquando Angelorum: Filius meus es tu, ego hodie genui te? Et rursum: Ego ero illi in patrem, et ipse erit mihi in filium? Et cum iterum introducit Primogenitum in orbem terræ, dicit: Et adorent eum ommes Angeli Dei. Et ad Angelos quidem dicit: Qui facit Angelos suos spiritus

et ministros suos flammam ignis. Ad filium autem: Thronus tuus, Deus, in sæculum sæculi: virga æquitatis, virga regni tui. Dilexisti justitiam, et odisti iniquitatem: propterea, unxit te Deus, Deus tuus, oleo exsultationis præ participibus tuis. Et: Tu in principio, Domine, terram fundasti; et opera manuum tuarum sunt cœli. Ipsi peribunt, tu autem permanebis, et omnes ut vestimentum veterascent: et velut amictum mutabis eos, et mutabuntur: tu autem idem ipse es et anni tui non deficient.

Graduela. Videbunt omnes fines terræ salutare Dei nostri: Jubilate Deo, omnis, terra. ℣. Notum fecit Dominus salutare suum: ante conspectum gentium revelavit justitiam suam.

Alleluia, alleluia. ℣. Dies sanctificatus illuxit nobis: venite, gentes, et adorate Dominum: quia hodie descendit lux magna super terram. Alleluia.

Ebanjelioa

HASTE hastetic zen Berboa (1), eta Berboa Jaincoaren baithan zen, eta Jainco zen Berboa. Hura haste- hastetic Jaincoaren baithan zen. Oro haren bidez eginac izan dire, eta hura gabe ez da egin deus egin denic. Haren baithan zen bizia, eta bizia gizonen argia zen. Eta argiac ilhunbetan argitzen dũ, eta ilhunbec ez dute ezagutu. Izatu da gizon bat Jaincoac igorria, izena zuena Joanes. Hura ethorri zen lecucotzat, argiari lecucotasun emateco haren bidez oroc sinhets zezatentzat. Hura et-zen argia bainan bai argiari lecucotasun emateco. Hau zen argi egiazcoa, mundu huntarat dathortzin gizon guziac argizen dituena. Munduan zen, eta mundua harrec egina da, eta bere jendec ez dute onhetsi. Bainan hura onhetsi duten guzieri, haren izenean sinheste duteneri, eman diote Jaincoaren ume bilhacatzeco ahala. Hauc ez dire ez

---

(1) *Berboa* da *Semea*, Trinitate sainduco bigarren presuna.

odoletic, ez haragiaren nahitic, ez gizonaren nahitic sorthuac, bainan bai Jaincoaren ganic. Eta Berboa haragi egin izan da, eta egotu da gure artean, eta icusi dugu haren loria, Aitaren Seme bakhar graziaz eta egiaz bethea denari doacon loria.

Ofertorioa. Tui sunt cœli, et tua est terra : orbem terrarum et plenitudinem ejus tu fundasti : justitia et judicium præparatio sedis tuæ.

Secreta. Oblata, Domine, munera nova Unigeniti tui nativitate sanctifica : nosque a peccatorum nostrorum maculis emunda. Per eumdem Dominum.

Comunionea. Viderunt omnes fines terræ salutare Dei nostri.

Postcomunionea. Præsta, quæsumus, omnipotens Deus : ut natus hodie Salvator mundi, sicut divinæ nobis generationis est auctor, ita et immortalitatis sit ipse largitor. Qui tecum vivit.

Eguerriz (Gauerdico mezan)

Ilkhi zen Zezar Augusten manu bat, mundu guzian izenen hartzeco. Lehenbizico izen hartze hori

egin zuen Zirino, Ziriaco buruzagiac. Eta bazoatzin oro izenaren ematerat, bacotcha bere herrirat. Bada Josep ere Galileatic, Nazaretecc hiritic, igan zen Judearat, Beteleme deitzen zen Dabiden hirirat, Dabiden etchetic eta odoletic zelacotz, izenaren emateco Maria bere emazte haur beharretan zenarekin. Eta gertatu zen, han zirela ric, bethe zitzaizcola haurraren izateco egunac. Eta mundurat eman zuen bere seme lehen-sorthua, eta chatarrez inguratu zuen, eta etzan othalaco batean, etzelacotz heientzat tokiric ostatuan Bada inguruna hetan baziren artzainac, gauaz aldizcatuz atzarriric zagotzinac beren artaldearen zain. Eta huna non Jaincoaren aingerua ethorri zitzaioten alderat, eta zeruticaco argi batec inguratu zituen, eta izialdura handi batec hartu. Eta erran zioten aingeruac: Etzaitezteła izi. Huna non ekhartzen dautzuetan berri bat, populu guziarentzat bozcario handia izanen dena: Gaur, Dabiden hirian, sorthu zaitzue Salbatzailea, hura baita Christo Jauna. Eta huntaric eza-

guturen duzue: Gausituco duzue haur bat chatarrez inguratua, eta othalaco batean ezarria. Eta ordu berean aingeruarekin aurkitu zen zeruco harmadatic multzu handi bat, eta Jaincoa laudatzen zuten, ziotelaric: Loria Jaincoari zeru gorenetan, eta lurrean bakea borondate oneco gizoneri.

Eguerri egunean, argitzeco mezaco

Ebanjelioa

DEMBORA hartan: Erran zuten artzainec elgarri: Goazen Bethlemeraino, eta dakhusagun gertatu izan den gauza hau, zeina Jaunac ezagut-arazi baitarocu. Joan ziren beraz lehiatuki, eta aurkhitu zituzten Maria eta Josep, eta haurttoa khorbe batean etzana. Eta icustearekin ezagutu zuten haur hartaz erran izan zaroena hala zela. Eta entzun zuten guziec miretsi zituzten artzainec erran ziotzaten gauzac. Bada Mariac bazeduzcan hauc oro eta bazerabiltzan bere gogoan. Eta itzuli ziren artzainac, Jaincoa goresten eta laudatzen zutelaric, aditu eta icusi

izan zituzten guziez, erran zitzaienaren arabera.

Bezperetan: Psalmoac: Dixit, Confitebor, Beatus, De profundis, Memento.

Himnoa: Jesu Redemptor.

TRUFANIAZ MEZAN

Introita

ECCE advenit Dominator Dominus: et regnum in manu ejus, et potestas, et imperium. *Ps.* Deus, judicium tuum regi da: et justitiam tuam filio regis. ℣. Gloria Patri. Ecce advenit.

Orazionea. Deus, qui hodierna die Unigenitum tuum Gentibus, stella duce, revelasti; concede propitius; ut qui jam te ex fide cognovimus, usque ad contemplandam speciem tuæ celsitudinis perducamur. Per eumdem Dominum.

Lectio Isaiæ Prophetæ

SURGE, illuminare, Jerusalem; quia venit lumen tuum, et gloria Domini super te orta est. Quia ecce tenebræ operient terram, et caligo populos; super te autem

orietur Dominus et gloria ejus in te videbitur. Et ambulabunt gentes in lumine tuo, et reges in splendore ortus tui. Leva in circuitu oculos tuos, et vide: omnes isti congregati sunt, venerunt tibi: filii tu de longe venient, et filiæ tuæ de latere surgent. Tunc videbis, et afflues, mirabitur et dilatabitur cor tuum, quando conversa fuerit ad te multitudo maris, fortitudo gentium venerit tibi. Inundatio camelorum operiet te, dromedarii Madia en Epha: omnes de Saba venient, aurum et thus deferentes, et laudem Domino annuntiantes.

Graduela. Omnes de Saba venient,. aurum et thus deferentes, et laudem Domino annuntiantes. ℣. Surge, et illuminare, Jerusalem: quia gloria Domini super te orta est.

Alleluia, alleluia. ℣. Vidimus stellam ejus in Oriente: et venimus cum muneribus adorare Dominum. Alleluia.

Ebanjelioa

NOLA Jesus sorthua baitzen Bethleme Judacoan, Herodes erre-

gearen egunetan huna non mago batzu Iguzki-aldetic ethorri ziren Jerusalemerat, ziotelaric: Non da sorthu Juduen erregea? Alabainan icusi dugu haren izarra Iguzki-aldean, eta haren adoratzerat gathortzi. Bada hori aditzearekin, Herodes erregea asaldatu zen, eta Jerusaleme guzia harekin. Eta bilduric aphez-nausiac eta populuaren iscribauac, galdegin zioten non sortzecoa zen Christo Eta hec erran zioten Beteleme Judacoan. Ezen hala iscribatua du Profetac; Eta hi, Beteleme Judaco lurra, ez haiz segur chumena Judaco lehenbizicoen artean, ezen hitaric duc ateraco, Izraelgo ene populuari manatuco dion aintzindaria. Orduan Herodesec, ichilka deituric magoac, arthoski icasi zuen heien ganic noiz agertu zitzaioten izarra. Eta Betelemerat igortzen zituelaric, erran zioten: Zoazte, galde zazue arthoski haurraren berriac; eta causitu dukezuenean, gaztia iezadazue, nathorrentzat ni ere haren adoratzerat. Hec errege entzun-eta, abiatu ziren; eta huna non Iguzki-aldean icusi zu-

ten izarra heien aintzinean zoan, haurra zen tokiaren gainerat heltzearekin han gelditu artio. Bada, izarra icustearekin, boztu ziren bozcario hainitz handiz. Eta, etchean sarturic, causitu zuten haurra, Maria bere amarekin, eta ahuspez emanic adoratu zuten, eta beren cutchac idekiric, escaini zioz caten emaitzac; urhea, isentsua, eta mirra. Eta lo zaudelaric iza nic Herodesen ganat ez bihurtzeco mezua, bertze bide batetaric itzuli ziren beren herrirat.

Ofertorioa. Reges Tharsis, et insulæ munera offerent: reges Arabum, et Saba dona adducent: et adorabunt eum omnes reges terræ: omnes gentes servient ei.

Secreta. Ecclesiæ tuæ quæsumus, Domine, dona propitius intuere: quibus non jam aurum, thus, et myrrha profertur; sed quod eisdem muneribus declaratur, immolatur et sumitur, Jesus Christus Filius tuus Dominus noster. Qui tecum vivit.

Comunionea. Vidimus stellam ejus in Oriente, et venimus cum muneribus adorare Dominum.

Postcomunionea. Præsta quæsumus, omnipotens Deus, ut quæ solemni celebramus officio purificatæ mentis intelligentia consequamur. Per Dominum.

MARIA BIRJINAREN

Anontziazioneco Ebanjelioa

GABRIEL aingerua igorri zuen Jaincoac Galileaco hiri Nazarete deitzenzen baterat, birjina baten ganat hau ezcondua zen Josep deitzen zen Dabiden etcheticaco gizon batekin, eta birjinaren izena zen Maria. Eta aingeruac, haren ganat sarturic, erran zion: Agur, graziaz bethea; Jauna da zurekin; benedicatua zare emazten artean. Maria, aditzearekin, asaldatu zuten haren solasec, eta gogoan zerabilan zer zaiteken agur hori. Eta aingeruac erran zion: Ez izi, Maria, ezen begitarte causitu duzu. Jaincoaren aintzinean. Huna non amatuco zaren sabelean, eta mundurat emanen duzu seme bat, eta izena emanen diozu Jesus. Hau handia izanen da, eta deituco da: Oroz-Gainecoaren Semea; eta Jainco Jaunac emanen dio Dabid bere

aitaren errege-alkia, eta Jacoben etchean erreginaturen du betiere, eta haren erregetasunac ez du izanen acabantzaric. Bada Mariac erran zion aingeruari : Nola eginen da hori, gizonic ezagutzen ez dutanaz geroz ? Eta ihardetsi zion aingeruac, erranez : Izpiritu Saindua jautsico da zutarat, eta Oroz-Gainecoaren indarrac bere itzalean ezarrico zaitu. Eta horrengatic zu ganic sortuco den Saindua deithuco da Jaincoaren Semea. Eta huna non Elizabeth, zure cusia, hura ere semea beharra den bere zahartzean, eta hau seigarren hilabethea da agorra deitzen dutenarentzat. Ez baita bada deus ezin eginic Jaincoarentzat. Bada Mariac erran zuen : Huna Jaincoaren nescatoa egina izan bedi zure erranaren arabera.

ERRAMUZ MEZAN

Introita

DOMINE, ne longè facias auxilium tuum a me : ad defensionem meam aspice : libera me de ore leonis, et a cornibus unicornium humilitatem meam.

Ps. Deus, Deus meus, respice in me: quare me dereliquisti ? longe a salute mea verba delictorum meorum. Domine.

Orazionea. Omnipotens sempiterne Deus, qui humano generi ad imitandum humilitatis exemplum, Salvatorem nostrum carnem sumere, et crucem subire fecisti: concede propitius; ut et patientiæ ipsius habere documenta, et resurrectionis consortia mereamur. Per eumdem Dominum.

Epistola, Jondoni Pauloren arabera

FRATRES: Hoc enim sentite in vobis, quod et in Christo Jesu: qui cum in forma Dei esset non rapinam arbitratus est esse se æqualem Deo: sed semetipsum exinanivit formam servi accipiens, in similitudinem hominum factus, et habitu inventus ut homo. Humiliavit semetipsum, factus obediens usque ad mortem, mortem autem crucis. Propter quod et Deus exaltavit illum, et donavit illi nomen, quod est super omne nomen: (*hemen belhaunicatzen da*) ut in nomine Jesu omne genu flectatur cœlestium, terrestrium,

et infernorum: et omnis lingua confiteatur, quia Dominus Jesus Christus in gloria est Dei Patris.

Jesu-Christo Gure Jaunaren Pasionea

JESUSEC erran zioten bere dizipulueri: Badakizue bi egunen buruan eginen dela Pazcoa; eta gizonaren Semea salduco dute gurutzeficatzeco. Orduan bildu ziren aphez aintzindariac eta populuco zaharrac, Caifas deitzen zen aphez nausiaren etche-sartzerat; eta elgar aditu zuten Jesusez jabetzeco amarruz, eta haren hil arazteco. Bainan zioten: Ez besta egunean, beldurrez eta buila egin zadien populuan. Bada nola Jesus Bethanian baitzen Zimon lepradunaren etchean, hurbildu zitzaion emazte bat alabastrazco untzi bat escuan, gantzugailu balios batez bethea, eta ichuri zion buruaren gainerat mahainean zelaric. Bada, ikusi zutenean gaizki hartu zioten dizipuluec, ziotelaric: Zertaco galtze hori? Ezen hori sal zaiteken garasti eta pobreri eman. Jesusec aldiz, baitzakien zer zarasaten, erran zioten: Zer-

gatic gaizkitzen duzue emazte hau ? ezen eni egin dautana egintza ona da Alabainan pobreac baditutzue bethi zuekin ; ni aldiz ez nauzue bethiizanen. Hunec gantzugailua ichuri duenean, ene gorphutzaren gainerat, egin du ene ehorzteari buruz. Egiaz derratzuet, non-nahi predica dadin Ebanjelio hau mundu guzian, hunec egin duena ere aiphatuco da hunen orhoitzapenetan. Orduan hamabietaric bat, Judas Izcariotarra deitua zena, joan zen aphez aintzindarietarat, eta erran zioten : Zer nahi dautazue eman, eta nic escuetaratuco dautzuet ? Eta hec hitzeman ziozcaten hogoita hamar zilhar. Eta ordutic arte onaren bilha zabilan, Jesusen heien escuetarat emateco. Bada altchagarriric gabetaco lehenbizico egunean, dizipuluac et horri zitzaizcon Jesusi, ziotelaric : Non nahi duzu behar dena presta diezazugun Pazcoaren jateco ? Eta Jesusec ihardetsi zioten : Zoazte hirirat hulacoaren ganat, eta errozue : Nausiac dio : Ene dembora hurbildua da, zure etchean egiten dut Pazcoa ene dizipuluekin. Eta

dizipuluec egin zuten Jesusec manatu bezala, eta prestatu zuten Pazcoa. Bada, arratsa jin zenean, mahainean eman zen bere hamabi dizipuluekin. Eta hauc jaten hari zirelaric, erran zioten: Egiaz derratzuet, zuetaric batec salduco nauela. Eta atsegabe handitan, hasi ziren nor bere aldetic galdeca: Ni othe naiz, Jauna? Eta Jesusec ihardetsi zuen, ziolaric: Enekin jatecoan escua bustitzen duenac, harec nau salduco. Badoa, bai, gizonaren Semea, hartaz iscribatua izan den bezala; bainan zorigaitz gizonaren Semea salduco duen gizonari; hobe zen gizon harentzat ez balitz sortu. Eta ihardetsi zion Judas hura saldu zuenac, ziolaric: Ni othe naiz, Nausia? Ihardetsi zion: Erran duzu. Bada hec afariten hari zirelaric, Jesusec hartu zuen ogia, eta hautsi eta benedicatu eta eman zioten bere dizipulueri, ziolaric: Har zazu, eta jan, hau da ene gorphutza. Eta edateco untzia harturic, eskerrac bihurtu zituen, eta eman zioten, ziolaric: Edanazue huntaric guziec. Ezen hau da ene odola, Testament

berricoa, hainitzentzat ichuria iza
nen dena bekhatuen barkhamen
dutan. Bada erraten dautzuet
Ez dut gehiago mahatsaren frui
tu huntaric edanen, ene Aitaren
erresuman zuekin berri bat edanen
dutan eguneraino. Eta eskerrac
emanic, ilkhi ziren Olibetaco men
dirat. Orduan erran zioten Jesu
sec : Guziec macurbide izanen du
zue ene gatic gau huntan, ezen is
cribatua da : Joco dut artzaina
eta barraiatuco dire artaldeco ar
diac. Bainan phiztuco naizenean
aintzinduco natzaitzue Galilea
rat. Bada Petric ihardetsi zion
ziolaric ; Bertze guziec macur-bide
behar badute ere zure gatic, nic ez
dut seculan hala izanen. Jesusec
erran zion : Egiaz derratzut, gau
huntan oilarrac jo baino lehen hi
ruetan ukhatuco nauzula. Ihar
detsi zion Petric : Behar banu ere
zurekin hil, et-zaitut ukhatuco.
Gauza bera erran zuten bertze dizi
pulu guziec ere. Orduan Jesus heie
kin ethorri zen Jetzemani deitua
zen bordalde batetarat, eta erran
zioten bere dizipulueri : Jar zaitezte
hemen, ni harachet noan artean

othoitz egiterat. Eta harturic Petri eta Zebederen bi semeac, hasi zen barnez ilhuntzen eta lazten. Orduan erran zioten heieri: Ene arima laztua da hiltzeco heineraino; igurica zazue hemen, eta zagozte enekin atzarriric. Eta aintzinachago joanic, erortzen da begitartez lurrerat, eta othoitz egiten du, diolaric: Ene aita, ahal balin-bada, urrun bedi ni ganic calitza hau: bizkitartean ez nic nahi bezala, bainan zuc nahi bezala. Eta heldu da bere dizipuluetarat, eta causitzen ditu lo, eta erraten dio Petriri: Zer bada, etzarete egon ahal izan oren bat enekin atzarriric? Zagozte atzarriric, eta othoitz egizue, tentazionean ez sartzeco: ezen gogoa suhar da, bainan haragia indargabe. Berriz bigarren aldicotz joan zen, eta othoitz egin zuen, ziolaric: Ene Aita, calitza hau ez baditake ene ganic urrunt nic edan gabe, egin bedi zure nahia. Eta ethorri zen berriz, eta causitu zituen lo, ezen begiac pisutuac zituzten. Eta hec utziric berriz ere joan zen, eta othoitz egin zuen hirugarren aldicotz, hitz berac erranez.

Orduan heldu da dizipuluetarat, eta erraten diote: Lo egizue orai, eta pausa zaitezte: huna tenorea hurbildua, eta gizonaren Semea emana izanen da gachtaginen escuetarat. Jeiki zaitezte, goazen; huna non hurbildua den ni etsaieri emanen nauena. Oraino mintzo zelaric, huna non Judas, hamabietaric bat, ethortzen den, eta harekin jende multzu handi bat, ezpatekin eta makilekin, aphez aintzindariec eta populuco zaharrec igorriric. Bada hura saldu zuenac, zertaric ezagut eman zioten erranez: Nori ere emanen baitiot musu, hura bera da; har zazue. Eta berehala Jesusen ganat hurbilduric, erran zion: Agur Nausia; eta eman zion musu. Eta Jesusec erran zion: Adichkidea, zertarat ethorri zare? Orduan hurbildu ziren, eta escuac ezarri zituzten Jesusen gainean, eta hartu zuten. Eta huna non Jesusekin zirenetaric batec, escua hedaturic ateratu zuen bere ezpata, eta aphez nausiaren sehi bat joric, picatu zion beharria. Orduan Jesusec erraten dio: Bihur zazu zure

ezpata bere tokirat: ezen ezpata hartuco duten guziaz ezpatatic joanen dire. Ala uste duzu ez dezaketala othoitz ene Aita, berehala igorrico bailauzket hamabi aingeru aralde baino gehiago ? Nola beraz betheco dire Iscribuac, hola gertatu beharra dela baitiote ? Orduan Jesusec erran zioten jende heieri: Ohoin baten ganat bezala ilki zarete ezpatekin eta makilekin ene hartzerat; egun oroz zuen artean jarria iracasten hari nintzen tenploan, eta ez nauzue hartu. Bainan hau guzia egin izan da, profetec iscribatuac bethe zitezentzat. Orduan dizipulu guziac hura utziric, ihesi joan ziren. Bada Jesus hartu zuten, eta ereman Caifas aphez-nausiaren etcherat, non bilduac baitziren iscribauac eta zaharrac. Petri aldiz urrundic jarraiki zitzaion aphez-nausiaren etche-sartzeraino. Eta barnerat sarturic, sehiekin jarri zen, gauza zertaraco zen icusteko. Bada aphez aintzindariec eta biltzar guziac gezurrezco lecucotasun bat bilhatzen zuten Jesusen contra, hunen hilarazteko. Eta etzuten atze-

man, nahiz asco lecuco gezurti agertu ziren. Azkenean ethorri ziren gi lecuco gezurti, eta erran zuten : Hunec erran du : Jaincoaren tenploa urra dezaket, eta hiru egunen buruco berriz chutic ezar. Eta jeikiric, aphez-nausiac erran zion : Deus ez duzu ihardesten lecuco horiec zure contra diotenari ? Bainan Jesus ichilic zagon. Eta aphez-nausiac erran zion : Jainco biziaz errekeritzen zaitut, erraguzu heia Christo Jaincoaren Semea zaren. Jesusec ihardesten dio : Erran duzu ; hargatic erraten dautzuet, egun batez icusico duzuela gizonaren Semea, Jainco guziz botheretsuaren escuinean jarria, eta zeruco hedoien gainean heldu. Orduan aphez nausiac urratu zituen bere soinecoac, ziolaric : Burhoa egin du ; zertaco behar dugu gehiago lecucoric ! Huna aditu duzuen burhoa. Zer zautzue ? Eta hec ihardetsi zuten erranez : Merezi du hiltzea. Orduan thu egin zioten begitarterat, eta ukhamilca jo zuten : bertze batzuec berriz zaflacoac eman ziozcaten begitartean ziotelaric : Pentsa ioza-

guc, Christo, nor den hi jo hauena. Bada Petri etche-sartzean jarria zagon canpoco aldean, eta hurhildu zitzaion nescato bat, ziolaric: Hi ere Jesus Galileacoarekin hintzen. Bainan harec ukhatu zuen guzien aintzinean ziolaric: Ez dakinat zer darasan. Eta nola athetic atheratzen baitzen, bertze nescato batec icusi zuen; eta erran zioten han zireneri: Hau ere Jesus Nazaretecoarekin zen. Eta berriz ukhatu zuen, zin eginez: Ez dutala ezagutzen gizon hori. Eta aphur baten buruan, hurbildu ziren han zagotzinac, eta erran zioten Petriri: Segurki hi ere horietaric haiz; ezen hire mintzairac berac salhatzen hau. Orduan hasi zen arneguca eta zinca, etzuela ezagutzen gizon hura. Et aorduan berean jo zuen oilarrac. Eta orhoitu zen Petri Jesusec erran zion hitzaz: Oilarrac jo baino lehen, hiruetan ukhatuco nauzu. Eta camporat ateraturic, nigar egin zuen garrazki. Bada argitu zuenean, aphez aintzindari guziec eta populuco zaharrec biltzarra egin zuten Jesusen contra, hunen hilarazteco. Eta lotua ere-

man zuten, eta Pontzio Pilatus gobernadorearen escuetan ezarri. Orduan Judas, hura saldu zuenac, icusiric harenac egin zuela, urrikiac eremanic, gibelat ekharri ziozcaten hogoi-ta hamar zilharrac aphez aintzindarieri eta za harreri, ziolaric: Bekhatu egin dut, hoben-gabeco odola salduz. Eta hec ihardetsi zioten: Guri zer zaucu? Icusac heronec. Eta, dirua ten ploan artikiric, gibelat itzuli zen, eta joan zen eta bere burua urkhatu zuen. Bada aphez aintzindariec, dirua bildu eta, erran zuten: Ez da haizu hau tenploco diru-cutchan ezartzea, odolaren saria delacotz. Eta elgarrekin erosi zuten bachera-egile baten landa, arrotzen ehorzteco. Horren gatic landa hura egungo eguneraino deitua izan da HACELDAMA, erran nahi da: odol landa. Orduan bethe zen Jeremias profetac erran zuena, zioenean: Eta hartu dituzte hogoita hamar zilhar, horrenbertzetan saltzeco egina baitzen Izraelgo umen ganic erosi dutena. Eta hec eman dituzte bachera-egile baten landan truc, Jaunac eni manatu

bezala. Bada Jesus agertu zen gobernadorearen aintzinerat, eta gobernadoreac galde hau egin zion: Juduen errege zare zu? Jesusec ihardetsi zion: Zuc diozu. Eta nola hobendun zela baitzioten aphez aintzindariec eta zaharrec, deus etzuen ihardetsi. Orduan Pilatusec erraten dio: Ez duzu entzuten zenbat lecucotasun darasaten zure contra? Eta etzion ihardetsi haren hitz bakhar bati; hainitz harritzen baitzen gobernadorea. Bada besta-buru egunean, gobernadoreac usaiaz populuari libratzen zion preso zen norbeit, nahi zutena. Eta orduan bazuen preso gaichtagin famatu bat deitzen zena Barrabas. Beraz han bilduac zireneri Pilatusec erran zioten: Nor nahi duzue libra dezazuedan, Barrabas, ala Jesus, Christo deitua dena? Bazakien alabainan hau bekhaiztiz eman ziotela escuetarat. Bada Pilatus juje-alkian jarria zagolaric, bere emazteac igorri zion erraterat: Deus ez bedi izan zure eta justu horren artean; ezen gaur hainitz jasana naiz ametsetan horren gatic. Aphez aintzindariec eta zaharrec aldiz populua

bildu zuten Barrabasen galdetzerat, eta Jesusen galtzerat. Beraz gobernadorea berriz mintzatu zitzaioten, ziolaric: Bietaric zoin nahi duzue libra dezazuedan? Eta ihardetsi zuten: Barrabas, Pilatusec erraten diote: Zer eginen dut beraz Jesus, Christo deitua denaz? Guziec ihardesten dute: Gurutzefica bedi. Gobernadoreac erraten diote: Bainan zer gaizki egin du? Bainan hec gehiago oihu egiten zuten ziotelaric: Gurutzefica bedi. Icustearekin beraz deus et-zuela irabazten, bainan buila handitzen hari zela, Pilatusec, ura harturic, escuac garbitu zituen populuaren aintzinean, ziolaric: Ni garbi naiz justu hunen odoletic; zuec icusazue. Eta populu guziac ihardetsi zuen, erranez: Horren odola gure gain, eta gure umen gain. Orduan libratu zioten Barrabas, Jesus aldiz azotaraziric escuetarat eman gurutzeficatzeco. Orduan gobernadorearen soldadoac, Jesus eremanic tribunaleco canpoco-alderat, haren gana bildu zuten cohorta guzia. Eta biluziric, capa gorri bat eman zioten soinerat; eta co-

ro bat bihurturic elhorriz, ezarri zioten buruan, eta escu escuinean canabera bat. Eta belhauna gurtuz haren aintzinean, trufatzen zuten, ziotelaric: Agur, Juduen erregea: Eta gainerat thu eginez, hartzen zioten canabera, eta burua jotzen. Eta trufatu zuten ondoan, capa khendu-eta, jauntzi zuten bere soinecoez, eta ereman zuten gurutzeficatzeco. Bada, ilkitzen zirelaric, causitu zuten Zireneco gizon bat Zimon deitua; hau bortchatu zuten Jesusen gurutzearen erematerat. Eta ethorri ziren Golgotha deitua den tokirat, hori baita Calbarioco tokia. Eta edaterat eman zioten arnoa edari kirets batekin nahasiric. Eta dastatu ondoan, etzuen edan nahi izan. Bada, gurutzeficatu ondoan, haren soinecoac partitu zituzten, chortean emanez; bethe zadientzat Profetac erran zuena, zionean: Beren artean faritu dituzte ene soinecoac eta ene soin-gainecoa chortean eman dute. Eta jarriric, haren zain zagotzin. Eta haren buruaren gaineco aldean iscribuz ezarri zuten haren hobena: *Hau da Jesus, Juduen erre-*

gea. Orduan gurutzeficatu zituzten harekin bi ohoin, bat escuinetaric, eta bertzea ezkerretaric. Eta iragaiten zirenac burhoca hari zitzaizcon, burua dardaratuz,eta erranez: Hea ! Jaincoaren tenploa urratzen ducana, salbazac hire burua : Jaincoaren Semea balin-bahaiz, jauts hadi gurutzetic. Halaber aphez aintzindariec ere trufatzen zuten iscribauekin eta zaharrekin, ziotelaric : Bertzeac salbatu ditu, bere burua ez dezake salba : Izraelgo errege balin bada, jauts bedi orai gurutzetic, eta sinhesten dugu horren baitan. Jaincoaren gainean fida da ; libra beza orai, maite balinbadu ; ezen erran du : Jaincoaren Semea naiz. Hala hala gaizkica hari zitzaizcon harekin gurutzeficatuac izan ziren ohoinac ere. Bada seigarren orenetic bederatzigarreneraino ilhunbec hartu zuten lur guzia. Eta bederatzigarren oreneco heinean, Jesusec hazcarki oihu egin zuen, ziolaric : *Eli Eli lamma sabacthani*, erran nahi baita : Ene Jaincoa, ene Jaincoa, zergatic utzi nauzu ? Bada han zagotzinetaric zenbeitec, hori aditzearekin, erraten zuten :

Elias deitzen du horrec. Eta berehala hetaric batec, lasterca joanic hartu zuen esponja bat, ozpinaz bethe, eta canabera baten puntan ezarriric, edaterat eman zion. Bertzec aldiz erraten zuten: Bego, dugun icus Elias heldu zaionez libratzerat. Bainan Jesusec, berriz oihu handi bat eginic, artiki zuen hatsa (1). — Eta ordu berean tenploco beloa urratu zen, bi aldetarat gainetic behereraino eta lurra ikharatu zen, eta erdiratu ziren harrocac. Eta hobiac ideki ziren, eta hilac ziren saindu hainitzen gorphutzac phiztu. Eta hobietaric ateraturic, Jesus phiztu ondoan, ethorri ziren hiri saindurat, eta ascori agertu. Capitaina aldiz eta harekin Jesusen zain zagotzinac, icusiric lur ikhara eta gertatu ziren guziac hainitz izitu ziren, eta zioten: Egiazki Jaincoaren Semea zen hori. Bada han zagotzin urrundic emazte multzu bat, Galileatic Jesusi jarraiki zitzaizconac, haren zerbitzatzeco. Heien artean ziren Ma-

(1) Hemen, belhaunico emanic, aphurtto bat gelditzen da.

ria Madalena, eta Maria Jacoben ama, eta Josepen ama. Bada arrats irian, ethorri zen Arimatiaco gizon aberats bat Josep deitua, hau ere Jesusen dizipulu baitzen. Joan zitzaion Pilatusi, eta galdegin zion Jesusen gorphutza. Eta gorphutza harturic, Josepec inguratu zuen mihise churi batean. Eta ezarri zuen harrocan picatuz egina zuen bere hobi berri batean. Eta ambildu zuen harri handi bat hobiaren ahorat, eta joan zen. Bada han ziren Maria Madalena, eta bertze Maria, hobiaren aldean jarriac.

Ofertorioa. Improperium expectavit cor meum, et miseriam et sustinui qui simul mecum contristaretur, et non fuit; consolantem me quæsivi, et non inveni et dederunt in escam meam fel, et in siti mea potaverunt me aceto.

Secreta. Concede, quæsumus omnipotens Deus; ut oculis tuæ majestatis munus oblatum, et gratiam nobis piæ devotionis obtineat, et effectum beatæ perennitatis acquirat. Per Dominum nostrum.

Comunionea. Pater, si non po-

test hic calix transire nisi bibam illum, fiat voluntas tua.

Postcomunionea. Per hujus, Domine, operationem mysterii, et vitia nostra purgentur, et justa desideria compleantur. Per Dominum.

Igandeco Bezperac.

Himnoa: Vexilla Regis.

BAZCO EGUNECO MEZA

Introita

RESURREXI et adhuc tecum sum, alleluia: posuisti super me manum tuam, alleluia: mirabilis facta est scientia tua, alleluia, alleluia, alleluia. *Ps.* Domine, probasti me, et cognovisti me: tu cognovisti sessionem meam et resurrectionem meam. ℣. Gloria Patri. Resurrexi.

Orazionea. Deus, qui hodierna die per Unigenitum tuum æternitatis nobis aditum devicta morte, reserasti; vota nostra, quæ præveniendo adspiras etiam adjuvando prosequere. Per eumdem Dominum.

Lectio Epistolæ beati Pauli Apostoli ad Corinthios.

FRATRES: Expurgate vetus fermentum, ut sitis nova conspersio, sicut estis azymi. Etenim Pascha nostrum immolatus est Christus. Itaque epulemur; non in fermento veteri, neque in fermento malitiæ et nequitiæ; sed in azymis sinceritatis et veritatis.

Graduela. Hæc dies quam fecit Dominus; exultemus et lætemur in ea. Confitemini Domino, quoniam bonus, quoniam in sæculum misericordia ejus.

Alleluia, alleluia. ℣. Pascha nostrum immolatus est Christus.

PROSA

VICTIMÆ paschali laudes immolent Christiani.

Agnus redemit oves; Christus innocens Patri reconciliavit peccatores.

Mors et vita, duello conflixere mirando; dux vitæ mortuus, regnat vivus.

Dic nobis, Maria, quid vidisti in via? Sepulcrum Christi viventis, et gloriam vidi resurgentis.

Angelicos testes, sudarium et vestes.

Surrexit Christus spes mea, præcedet vos in Galileam.

Scimus Christum surrexisse a mortuis vere : tu nobis, victor Rex, miserere. Amen. Alleluia.

Ebanjelioa

MARIA Madalenac, eta Maria Jacoberenac eta Salomec erosi zituzten usain onac, Jesusen gantzutzerat joateco. Eta larunbat biharamunean goiz goizetic badoatzi hobirat, iguzkia ateratu orduco. Eta erraten zioten elgarri. Norc ambilduco daucu harria hobiaren sartzetic ? Eta, behatzearekin, icusi zuten harria ambildua. Gaitza zen alabainan. Eta sarturic hobian, icusi zuten gizon gazte bat jarria escuinetaric, soineco churiz jauntzia, eta harritu ziren. Harec erraten, diote : etzaiteztela izi, Jesus Nazaretecoa, gurutzeficatua izan dena, duzue bilhatzen ? Phiztu da, ez da hemen ; huna ezarri zuten tokia. Bainan zoazte errozuete haren dizipulueri eta Petriri aintzintzen zaituztela Galilearat ; han

icusico duzue, erran dautzuen bezala.

Ofertorioa. Terra tremuit, et quievit, dum resurgeret in judicio Deus, alleluia.

Secreta. Suscipe, quæsumus, Domine, preces populi tui cum oblationibus hostiarum ; ut Paschalibus initiata mysteriis, ad æternitatis nobis medelam, te operante, profieiant. Per Dominum.

Comunionea. Pascha nostrum immolatus est Christus, alleluia : itaque epulemur in azymis sinceritatis et veritatis, alleluia, alleluia, alleluia.

Postcomunionea. Spiritum nobis, Domine, tuæ charitatis infunde ut quos sacramentis Paschalibus satiasti, tua facias pietate concordes. Per Dominum.

Igandetaco Bezperac.

O filii, *liburuaren akhabantzan*

SALBATOREZ MEZAN

Introita

VIRI Galilæi, quid admiramini aspicientes in cœlum ? alleluia ; quemadmodum vidistis eum ascen-

dentem in cœlum, ita veniet, alleluia, alleluia, alleluia. *Ps.* Omnes gentes, plaudite manibus: jubilate Deo in voce exsultationis. ℣. Gloria Patri. Viri Galilæi.

Orazionea. Concede, quæsumus, omnipotens Deus; ut qui hodierna die Unigenitum tuum Redemptorem nostrum, ad cœlos ascendisse credimus, ipsi quoque mente in cœlestibus habitemus. Per eumdem Dominum.

Lectio Actuum Apostolorum

PRIMUM quidem sermonem feci de omnibus, ô Theophile, quæ cœpit Jesus facere et docere, usque in diem, qua præcipiens Apostolis per Spiritum Sanctum, quos elegit, assumptus est: quibus et præbuit seipsum vivum post Passionem suam in multis argumentis, per dies quadraginta apparens eis, et loquens de regno Dei. Et convescens, præcepit eis, ab Jerosolymis ne discederent, sed exspectarent promissionem Patris, quam audistis, (inquit) per os meum; quia Joannes quidem baptizavit aqua, vos autem baptizabimini

Spiritu Sancto non post multos hos dies. Igitur qui convenerant, interrogabant eum, dicentes: Domine, si in tempore hoc restitues regnum Israel? Dixit autem eis: Non est vestrum nosse tempora vel momenta, quæ Pater posuit in sua potestate: sed accipietis virtutem supervenientis Spiritus Sancti in vos, et eritis mihi testes in Jerusalem, et in omni Judæa, et Samaria, et usque ad ultimum terræ. Et cum hæc dixisset, videntibus illis, elevatus est: et nubes suscepit eum ab oculis eorum. Cumque intuerentur in cœlum euntem illum, ecce duo viri adstiterunt juxta illos in vestibus albis, qui et dixerunt: Viri Galilæi, quid statis aspicientes in cœlum? Hic Jesus, qui assumptus est a vobis in cœlum, sic veniet quemadmodum vidistis eum euntem in cœlum.

Alleluia, alleluia. ℣. Ascendit Deus in jubilatione, et Dominus in voce tubæ. Alleluia. ℣. Dominus in Sina, in sancto: ascendens in altum, captivam duxit captivitatem. Alleluia.

Ebanjelioa

MAHAINEAN zirelaric hameca apostoluac, agertu zitzaioten Jesus; eta gaizkitu zituen beren sinheste escasaz eta bihotz gogortasunaz, hura phiztu zela icusi zutenac sinhetsi etzituztelacotz. Eta erran zioten: Zoazte mundu guzian barna, predica zozuete Ebanjelioa diren guzieri. Sinhetsico duena eta bathaiatua izanen dena salbatua izanen da; aldiz sinhetsico ez duena damnatua izanen da. Eta sinhetsico duteneri jarraikiren zaizcote miraculu hauc: Ene izenean de bruac casatuco dituzte; mintzaira berriz mintzatuco dire; sugeac erabilico dituzte: eta hiltzeco zerbeit edaten badute, ez diote calteric eginen; erien gainean escuac ezar rico dituzte eta sendatuco dire. Eta Jesus Jauna, heieri mintzatu ondoan altchatu zen zerurat, eta jarria dago Jaincoaren, escuinean, Bada hec joan ziren, eta predicatu zuten bazter guzietan, Jaunac lagunduz, eta indar emanez heien hitzari jarraikitzen zitzaizcon miracuiluez.

Ofertorioa. Ascendit Deus in ju-

bilatione, et Dominus in voce tubæ, alleluia.

Secreta. Suscipe, Domine, munera quæ pro Filii tui gloriosa Ascensione deferimus, et concede propitius: ut a præsentibus periculis liberemur, et ad vitam perveniamus æternam. Per eumdem Dominum.

Comunionea. Psallite Domino, qui ascendit super cœlos cœlorum ad orientem, alleluia.

Postcomunionea. Præsta nobis, quæsumus, omnipotens et misericors Deus: ut quæ visibilibus mysteriis sumenda percepimus, invisibili consequamur effectu. Per Dominum.

Igandetaco Bezperac. Azken psalmoa: Laudate Dominum.

Himnoa: Salutis humanæ sator.

MENDECOSTEZ MEZAN

Introita

SPIRITUS Domini replevit orbem terrarum, alleluia: et hoc quod continet, omnia, scientiam habet vocis, alleluia. *Ps.* Exsurgat Deus, et dissipentur inimici ejus, et fu-

giant, qui oderunt eum, a facie ejus. ℣. Gloria Patri. Spiritus Domini.

Orazionea. Deus, qui hodierna die corda fidelium sancti Spiritus illustratione docuisti: da nobis in eodem Spiritu recta sapere, et de ejus semper consolatione gaudere. Per Dominum... in unitate ejusdem.

Lectio Actuum apostolorum.

CUM complerentur diesPentecostes erant omnes discipuli pariter in eodem loco: et factus est repente de cælo sonus, tanquam adventientis spiritus vehementis, et replevit totam domum ubi erant sedentes. Et apparuerunt illis dispertitæ linguæ tanquam ignis, seditque supra singulos eorum: et repleti sunt omnes Spiritu Sancto, et cœperunt loqui variis linguis, prout Spiritus Sanctus dabat eloqui illis. Erant autem in Jerusalem habitantes Judæi, viri religiosi, ex omni natione quæ sub cœlo est. Facta autem hac voce, convenit multitudo, et mente confusa est, quoniam audiebat unusquisque lingua sua il-

IV. O saindu guziz leial, gure erospeneco misterioen jakintsun, san Josep loriosa, Jesusec eta Mariac jasan behar zituzten pairamenac Simeonen ahotic aintzinetic icasiz, atsegabetu zinen arimaren zolaraino; bainan boztu zinen ere entzutearekin bide hortaz arima hainiz salbatu eta phiztu behar zirela.

Atsegabe eta alegrantzia horiez, ardiets diezaguzu izan gaitezen, Jesusen merezimendueri esker eta Maria birjina dohatsuaren ararteco-tasunaz, lorioski phiztuco direnen artean.

Gure Aita; Agur Maria eta *Gloria.*

V. O zaintzale guziz arthatsu, Jainco Seme gizon eginaren adiskide min, San Josep loriosa, zombat ez duzu pairatu Guziz-Goraren Semea hazteco eta zerbitzatzeco, berezikiEjiptorat ihes egitearekin; nola aldiz bozcariatzen zinen Ejiptoco jainco faltsuac lurrerat eroriac icusteaz!

Atsegabe eta alegrantzia horiez,

ardiets diezaguzu gu ganic behin bethicotz ifernuetaco nausi bihurria urrunt dezagun, ocasione lanjeroseri ihes eginez, eta gure bihotzean munduco estecamendu guzien jainco faltsuac herrauts ditzagun, amoreagatic eta Jesusen eta Mariaren zerbitzatziaz osoki hartuac, heientzat bakharric bizi gaiten eta heien amodioan alegeraki hil gaitezen.

Gure Aita, Agur Maria eta *Gloria.*

VI. Lurreco Aingeru, San Josep loriosa, zure nahi ttikienaren escupeco zeruco Erregea miretsi ahal dukezuna, Arkelausen beldurrac zure Ejiptotic itzultzeco zoriona pozoindatu balimbazuen ere, laster, aingeruac sosegaturic, bozcariatu zinen Nazarethen egoiteaz Jesusekin eta Mariarekin.

Atsegabe eta alegrantzia horiez, ardiets diezaguzu gure bihotzetic beldur gaichto guzien urruntzea, contzientziaren bakeaz gozatzea, Jesusekin eta Mariarekin urus bizitzea eta heien amodioan ere hiltzea.

Gure Aita, Agur Maria eta *Gloria.*

VII. O saindutasun guzien model, san Josep loriosa, Jesus haurra zure hutsic izan gabe galdu eta, hirur egunez bilhatu duzu bihotzminic saminenarekin, dotoren erdian tenploan zure bizia zena bozcariorekin causitu dukezun arteraino.

Atsegabe eta dolore horiez, othoizten zaitugu bihotzez eta ezpainez, gure fagoretan ararteco jar zaiten, ez dezagun gehiago Jesus gal bekhatu mortal zombaitez. Zorigaitz neurrigabe hori baginu, egizu bilha dezagun pausuric utzico ez daucun urriki batekin, nun ez dugun causitu gufe heriotzeco orenean, hartaz gozatzerat joan gaitezen zerurat eta zurekin haren Jaincozco misericordiac gorets ditzagun bethiren bethi.

Antiph. Jesusec bazuen hogoi eta hamar urtheren heina, eta zaducaten Joseperen semetzat.

℣. Othoitz egizu guretzat, san Josep.

℟. Jesu Christoren agintzez merezdun bilhaca gaitezen.

OTHOITZA

JAINCOA, zoinac probidentzia miresgarri batez hautatu nahi izan baituzu Josep dohatsua, zure ama guziz sainduaren espos izaiteco, egizu othoi, lur huntan gure zaintzale gisa goresten dugun bezala, merezi dezagun zeruetan gure ararteco izan dadien. O zu, bizi zarena eta erreginatzen duzuna menderen mendetan. Halabiz.

Ehun egunen indulientzia, egunean behin. Hirur ehun egunena astezkenetan. Indulientzia plenarioa San Josepen bestan eta Phazcotic hirurgarren igandean. Indulientzia plenarioa hilabethean behin, egun guziz egin balimbadire othoitz horiec.

Zazpi igandez segidan egilen baditutzu, cofesatuz, comuniatuz eta Aita Sainduaren chedetarat othoitz zerbait eginez, aldi guziz indulientzia plenario bat irabaz dezakezu.

SAN LEONEN LITANIAC

JAUNA, urrical zakizkigu.
Jesu-Christo, urrical zakizkigu.
Jauna, urrical zakizkigu.
Jesu-Christo, adi gaitzazu.
Jesu-Christo, entzun gaitzazu.
Aita zerucoa, Jainco zarena, urrical zakizkigu.
Seme munduaren berreroslea, Jainco zarena, urrical zakizkigu.
Izpiritu Saindua, Jainco zarena, urrical zakizkigu.
Trinitate Saindua, Jainco bakhar bat zarena, urrical zakizkigu.
Maria Saindua, othoitz egizu guretzat.
San Leon, Baionaco apostolua,
San Leon, fedea gure ganat itzularazi duzuna,
San Leon, idolac mutuarazi dituzuna,
San Leon, gure idolatria ezeztatu duzuna,
San Leon, gure aintzinecoac combertitu dituzuna,
San Leon, Jesu-Christoren martira,

San Leon, bizia guretzat eman duzuna,
San Leon, gure herrico lurra zure odolaz gorritu duzuna,
San Leon, Jesu-Christo baithan sortze berria eman deraucuzuna,
San Leon, hiriaren ohorea,
San Leon, zeinaren haur maiteac baicare,
San Leon, hiriaren inguruco murrua,
San Leon, Lapurdico loria,
San Leon, fedezco modela,
San Leon, caritatezco modela,
San Leon, garbitasunezco modela,
San Leon, mortificazionezco modela,
San Leon, pazientziazco modela,
San Leon, iraupenezco modela,
San Leon, Jaincoarentzat eta lagunarentzat sacrifizio egile modela,
San Leon, berthute guzien modela,
San Leon, familien confiantza,
San Leon, ama guzien esperantza,
San Leon, haur chumeen begiralea sortzen diren ordutic,

San Leon, jende beharren laguntza,
San Leon, erien socorria,
San Leon, bihotzminen eztitzailea,
San Leon, Jaincoaren aintzinean gure bitartecoa,
Fedea begira dezagun, izan zaite gure ararteco,
Gure bekhatuen barkhamendua ardiets diezagun,
Caritatezco batasunean bizi gaitezen,
Garbitasunean iraun dezagun,
Bethi humil izan gaitezen,
Munduco banitateac arbuia detzagun,
Debruaren artei eta sarei escapa gaitezen,
Gaitz guzietaric begiratuac izan gaitezen,
Bekhatu guzietaric zainduac gaudezen,
Grazian iraun dezagun azken oreneraino,
Heriotze saindu bat egin dezagun,
Zerurat hel gaiten,

Jaincoaren bildotsa, munduco be-

khatuac khentzen dituzuna, barkha zaguzu, Jauna.

Jaincoaren bildotsa, munduco bekhatuac khentzen dituzuna, adi gaitzatzu, Jauna.

Jaincoaren bildotsa, munduco bekhatuac khentzen dituzuna, urrical zakizkigu.

Othoitz egizu guretzat, San Leon dohatsua.

Izan gaitezen Jesusen agintzen gai.

OTHOITZA

O JAINCO Jauna, pagano ilhumpetaric ebanjelioarẹn argirat iraganarazi gaitutzuna, San Leon aphezpicu eta martir dohatsuaren predicuez : haren beraren araretecotasunaz, egizu aintzina gaitezen egun guziez grazian eta Jesu-Christo gure Jaunaren ezagutzan zeina baita zurekin bizi dena eta erreginatzen duena mendeen mendetan. Halabiz.

San LEON

Aphezpicu eta Martir, Baionaco Patroinari, Emazte haur esperantzetan direnen

OTHOITZAC

SAN Leon, Saindu handia, gure arbasoen Apostolu izan zaren bezala, orai ere (heien fedetic mendratuac izan arren) Jainco guziz misericordiosa ganic ardiesten darozkigutzun laguntza handien ariaz, gure Apostolu izatetic gelditu etzarena: zure arartecotasun botheretsurat dut laster egiten, nahiz enetzat, nahiz dakharkedan fruituarentzat; izan dezadantzat mundurat uruski eman dukedan ondoan, bataioco ur sainduan graziarat berriz sortzeco zoriona. Zure othoitzez egizu, gure lehen burhasoen crima dela causa, emaztekiac erditzean jasaiterat condenatuac izan diren sofricarioac, dakizkidan arinduac eta laburtuac. Orai danic hec guziac ofreitzen darozkitzut Jesu-Christo gure Jaunari hel-arazteco, bere pasionean eta gurutzearen gainean berac jasan dituenekin

bat egiteco; balia dakizkidantzat arren, ene bekhatuen barkhamendutan, eta ene haur hunen salbamendutan. Zure gerizaren azpian ematen dut, nerekin batean; eta errekeritzen zaitut Jaincoa ganic batari eta bertzeari ardiesteaz, haren manamenduen arabera bizitzeco, eta zuc predicatu darocuzun fedearen manuac haltoki agertzeco eta gure baithan ezagut arazteco grazia, finean hel gaitezentzat bizitze eternalerat. Halabiz.

ENE Jainco Jauna, zeruaren eta lurraren Creatzailea, zeinac gauza guziac adelatzen baititutzu, plazer duzun bezala, nahi izatu duzunaz geroz gutaz zerbitzatu haur chumeen mundurat emaiteco, zeinac egun batez behar baitire izan gai zure zerbitzatzeco; egidazu grazia, Jauna, nere nekeen eta oinhazen ongi sofritzeco; borondate onez errezebitzen ditut, eta othoizten zaitut nere bihotz guziaz, junta dietzakidatzun zuc ene gatic zure pasionean eta heriotzean pairatu ditutzun pena eta doloreekin. Escaintzen natzaizu nere fruitua-

rekin batean; eta egidazu grazia bathaiorat segurki ekhartzeco eta bere bizitze guzian zure manamenduei obedient izateco. Entzun zazu bada, Jainco ona, ene othoitza, eta har gaitzatzu haurra eta ama zure gomendioan. Birjina Saindua, ama guzien ohorea eta contsolazionea, urrical bekizu ama gaicho hau, zeinaren nahia baita zure Seme maiteari zerbitzari baten emaitea. Esperantza dut halaber izanen dela zure zerbitzaria; ezen orai danic escaintzen darotzut, eta zaitut othoizten begira gaitzazun zorigaitz guzietaric, eta nahi dut ethorkizunean zure borondatea izan dadin ene bizia eta ene obra guzien bidatzailea. Halabiz.

SAN ANTONIO PADUCOAREN LITANIAC

JAUNA, urrical zakizkigu.
Christo, urrical zakizkigu.
Jauna, urrical zakizkigu.
Christo, adi gaitzazu.
Christo, entzun gaitzazu,
Aita Jainco zeruetan zarena, urrica zakizkigu.
Seme Jainco, munduaren Eroslea, urrical zakizkigu.
Izpiritu Saindu, Jainco zarena, urrical zakizkigu.
Trinitate Saindu, Jainco bakharra, urrical zakizkigu.
Maria Saindua, othoitz egizu guretzat.
Jaincoaren Ama saindua, othoitz egizu guretzat.
Saindu guzien erregina,
San Antonio Paducoa,
San Antonio, Jesusen eta Mariaren adiskidea,
San Antonio, Jesus Jaunari hain chuchen jarraiki zarena,
San Antonio, Mariaren laudorioac hain ederki errepicatu dituzuna,

San Antonio, Eliza catholicoaren argia,
San Antonio, San Frantsesen ordenaren ohorea,
San Antonio, fraiden etsemplu miragarria,
San Antonio, predicari guziz khartsua,
San Antonio, arimez gose eta egarri zinena,
San Antonio, hambat arima zeruco biderat bihurtu duzuna,
San Antonio, miracuilu egile pare gabecoa,
San Antonio, eri sendatzailea,
San Antonio, hil phiztailea,
San Antonio, othoitz egile handia,
San Antonio, eztia eta humila,
San Antonio, osoki obedienta,
San Antonio, lilia bezen garbia,
San Antonio zure jite gachtoac ezeztatu ditutzuna,
San Antonio, gorphutza garrazki ekharri duzuna,
San Antonio, zure laguntza galdetzen duten guziac entzuten dituzuna, othoitz egizu guretzat,
San Antonio, gauza galduac at-

Othoitz egizu guretzat

zemanarazten dituzuna, othoitz egizu guretzat.

San Antonio jende beharra hazten duzuna, othoitz egizu guretzat.

Jaincoaren Bildots, munduco bekhatuac khentzen dituzuna, barkha diezaguzu, Jauna.

Jaincoaren Bildots, munduco bekhatuac khentzen dituzuna, entzun gaitzazu, Jauna.

Jaincoaren Bildots, munduco bekhatuac khentzen dituzuna, urrical zakizkigu.

Christo, adi gaitzazu.

Christo, entzun gaizatzu.

OTHOITZ GUZIZ INDARTSUA

SAN ANTONIO handia, laudatzen eta goresten zaitut Jaincoac bertze saindu guzien artean eman derauzkitzun ahal berezien gatic. Herioa garhaitzen du zure indarrac, zure argiac gezurraren lanhoa barraiatzen; gizonen gachtakeriac lehertu nahi lituzkenec ardiesten dute zuri esker hain suharki deitzen duten laguntza. Lepradunac, eriac, inbalierac sendatzen ditu zure bothereac, zure manuac ez-

titzen calernac eta itsasoaren hasarreac ; zure hitzari behatuz hausten dituzte preso direnen gatheac ; gauza galduac zuri esker atzemanic bihurtzen dire jabe zuzenetarat ; zuri fidantziarekin hel egiten dautzuten guziac libratzen dituzu, bai ethorriac, bai hurbilduac dituzketen gaitzetaric ; hitz batez, ez da zure ahala eta ontasuna heltzen ez den behar orduric. O san Antonio, ararteco botheretsua, zerutic izan ditutzun grazia horien guzien gatic, othoizten eta errekeritzen zaitut, aita batec bezala arta har dezazun ene arimaz, ene gorphutzaz, ene harat hunatez, eta ene bizi guziaz, segur bainaiz deusec munduan ez dautala calteric eginen zu bezalaco aintzindari eta zaintzale batec begiratzen eta bidatzen naueno. Nere alde jarriric, aipha zotzu eta iracuts ene beharorduac eta miseriac Aita urricalmendutsuari, Jainco contsolatzaileari, eta, zuc hola merezituric, hazcar nezala bere zerbitzuan, contsola ene bihotz minetan, nere gaitzetaric libra, edo bederen eman diezadala ene arimarentzat hobe

ditaken bezala heien jasaiteco indarra. Galdegiten ditut grazia horiec neretzat, eta nahigabe eta herstura beretan diren guzientzat. Oi zu, Jesusi bethi hain ederki jarraiki zarena, gauza galduen atzemanarazteco ahal berezia emana izana zaitzunaz geroz, othoi, othoi, egizu atzeman dezadan — *holaco gauza*, — Jaincoac hala nahi badu; ardiets diezadazu bederen izpirituco descantsua eta contzientziaco bakhea, horien galtzeac bihotzmin gehiago ematen baitaut munduco gauza guzien galtzeac baino. Fagore horiekin eman diezadazu bertze hau: beti arimaco ontasun gorde horien osoki jabe egon nadin, eta seculan etsaiaren indarrac ontasun horiec ebatsiric, ez nezan berechi ene Jaincoaren ganic, orai eta bethi ohore eta esker on zor zaion Jaincoaren ganic.

(100 *egunetaco indulientzia*)

✝

SAINDUEN LITANIAC

KYRIE, eleison.
Christe, eleison.
Kyrie, eleison.
Christe, audi nos.
Christe, exaudi nos.
Pater de cœlis Deus, miserere nobis.
Fili Redemptor mundi Deus, miserere nobis.
Spiritus sancte Deus, miserere nobis.
Sancta Trinitas unus Deus, miserere nobis.
Sancta Maria,
Sancta Dei Genitrix,
Sancta Virgo virginum,
Sancte Michael,
Sancte Gabriel,
Sancte Raphael,
Omnes Sancti Angeli et Archangeli, orate pro nobis.
Omni sancti beatorum Spirituum ordines, orate pro nobis.
Sancte Joannes Baptista, ora pro nobis.
Sancte Joseph, ora pro nobis.
Omnes sancti Patriarchæ et Prophetæ, orate pro nobis.

ora pro nobis

Sancte Petre, ora pro nobis.
Sancte Paule,
Sancte Andrea,
Sancte Jacobe,
Sancte Joannes,
Sancte Thoma,
Sancte Philippe,
Sancte Bartholomæe,
Sancte Mathæe,
Sancte Simon,
Sancte Thaddæe,
Sancte Mathia,
Sancte Barnaba,
Sancte Luca,
Sancte Marce,

Ora pro nobis

Omnes sancti Apostoli et Evangelistæ, orate pro nobis.
Omnes sancti Discipuli Domini, orate pro nobis.
Omnes sancti Innocentes, orate pro nobis.
Sancte Stephane, ora pro nobis.
Sancte Laurenti, ora pro nobis.
Sancte Vincenti, ora pro nobis.
Sancti Fabiane et Sebastiane, orate pro nobis.
Sancti Joannes et Paule,
Sancti Cosma et Damiane,
Sancti Gervasi et Protasi,
Omnes sancti Martyres,

Sancte Silvester, ora pro nobis.
Sancte Gregori,
Sancte Ambrosi,
Sancte Augustine,
Sancte Hieronyme,
Sancte Martine,
Sancte Nicolæ,
Omnes sancti Pontifices et Confessores, orate pro nobis.
Omnes sancti Doctores, orate pro nobis.
Sancte Antoni,
Sancte Benedicte,
Sancte Bernarde,
Sancte Dominice,
Sancte Francisce, ora pro nobis.
Omnes sancti Sacerdotes et Levitæ, orate pro nobis.
Omnes sancti Monachi et Eremitæ, orate pro nobis.
Sancta Maria Magdalena,
Sancta Agatha,
Sancta Lucia,
Sancta Agnes,
Sancta Cæcilia,
Sancta Catharina,
Sancta Anastasia,
Omnes sanctæ Virgines et Viduæ, orate pro nobis.

Omnes Sancti et Sanctæ Dei, intercedite pro nobis.
Propitius esto, parce nobis, Domine.
Propitius esto, exaudi nos, Domine,
Ab omni malo, libera nos, Domine,
Ab omni peccato,
Ab ira tua,
Ab subitanea et improvisa morte,
Ab insidiis diaboli,
Ab ira et odio, et omni mala voluntate,
A spiritu fornicationis,
A fulgure et tempestate,
A flagello terræmotus,
A peste, fame et bello,
A morte perpetua,
Per mysterium sanctæ incarnationis tuæ,
Per adventum tuum,
Per nativitatem tuam,
Per baptismum et sanctum jejunium tuum,
Per Crucem et Passionem tuam,
Per Mortem et Sepulturam tuam,
Per sanctam Resurrectionem tuam

Libera nos, Domine

Per admirabilem Ascensionem tuam,
Per adventum Spiritus Sancti Paracliti,
In die judicii,
Peccatores, te rogamus, audi nos.
Ut nobis parcas,
Ut nobis indulgeas,
Ut ad veram pœnitentiam nos perducere digneris,
Ut ecclesiam tuam sanctam regere et conservare digneris,
Ut domnum Apostolicum et omnes ecclesiasticos ordines in sancta religione conservare digneris,
Ut inimicos sanctæ Ecclesiæ humiliare digneris,
Ut regibus et Principibus christianis pacem et veram concordiam donare digneris,
Ut cuncto populo christiano pacem et unitatem largiri digneris,
Ut nosmetipsos in tuo sancto servitio confortare et conservare digneris,
Ut mentes nostras ad cœlestia desideria erigas,

Te rogamus, audi nos

Ut omnibus benefactoribus nostris sempiterna bona retribuas,
Ut animas nostras, fratrum, propinquorum et benefactorum nostrorum ab æterna damnatione eripias,
Ut fructus terræ dare et conser-vare digneris,
Ut omnibus fidelibus defunctis requiem æternam donare digneris,
Ut nos exaudire digneris,
Fili Dei,

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, parce nobis, Domine.
Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, exaudi nos, Domine.
Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, miserere nobis.
Christe audi nos.
Christe, exaudi nos.
Kyrie, eleison.
Christe, eleison.
Kyrie, eleison.
Pater noster, etc.

℣. Et ne nos inducas in tentationem.

℟. Sed libera nos a malo.

PSALMOA 60

DEUS, in adjutorium meum intende : — Domine, ad adjuvandum me festina.

Confundantur, et revereantur, — qui quærunt animam meam.

Avertantur retrorsum, et erubescant, — qui volunt mihi mala.

Avertantur statim erubescentes, — qui dicunt mihi : Euge, euge.

Exsultent et lætentur in te omnes qui quærunt te, — et dicant semper : Magnificetur Dominus, qui diligunt salutare tuum.

Ego vero egenus et pauper sum, — Deus, adjuva me.

Exsultent et lætentur in te omnes qui quærunt te, et dicant semper : Magnificetur Dominus, qui diligunt salutare tuum.

Ego vero egenus et pauper sum : — Deus, adjuva me.

Adjutor meus, et liberator meus es tu : — Domine, ne moreris.

Gloria Patri, et Filio, etc.

℣. Salvos fac servos tuos.

℟. Deus meus, sperantes in te ;

℣. Esto nobis, Domine, turris fortitudinis. ℟. A facie inimici.

℣. Nihil proficiat inimicus in nobis. ℟. Et filius iniquitatis non apponat nocere nobis.

℣. Domine, non secundum peccata nostra facias nobis.

℟. Neque secundum iniquitates nostras retribuas nobis.

℣. Oremus pro Pontifice nostro N.:- ℟. Dominus conservet eum et vivificet eum, et beatum faciat eum in terra, et non tradat eum in animam inimicorum ejus.

℣. Oremus pro benefactoribus nostris. ℟. Retribuere dignare, Domine, omnibus nobis bona facientibus propter nomen tuum, vitam æternam. Amen.

℣. Oremus pro fidelibus defunctis. ℟. Requiem æternam dona eis, Domine: et lux perpetua luceat eis.

℣. Requiescant in pace. ℟. Amen.

℣. Pro fratribus nostris absentibus. ℟. Salvos fac servos tuos, Deus meus, sperantes in te.

℣. Mitte eis, Domine, auxilium de sancto. ℟. Et de Sion tuere eos.

℣. Domine, exaudi orationem meam. ℟. Et clamor meus ad te veniat.

℣. Dominus vobiscum. ℣. Et cum spiritu tuo.

OREMUS

℟. Amen.

℣. Exaudiat nos omnipotens et misericors Dominus. ℟. Amen. (*Adorazione egunean*) : Et custodiat nos semper. Amen.

℣. Et fidelium animæ per misericordiam Dei requiescant in pace. ℟. Amen.

IHS

GURUTZEAREN BIDEA EGITECO MOLDEA.

O Crux, ave, spes unica!
Mundi salus et gloria!
Piis adauge gratiam
Reisque dele crimina.

Has aintzinec o othoitza aldarearen oinetan egiten dena.

JESUS, ene Salbatzaile dibinoa! **huna non naizen** ahuspez zure oinetan, enetzat eta zure grazian hil direnentzat misericordia galdatzeco. Phartalier egin nazazu, othoi, gogoan erabiltzera nohan zure pasionearen merezimendu neurrigabeez. Nigarrezco eta auhenezco bide huntan hain urriki minaz hunki zazu ene bihotza, non ekharria izan nadin bizi huntaco neke guzien gogotic jasaiterat zu gatic.

Eta zuc Gurutzearen bidea lehenic iracatsi daucuzuna, Maria Saindua, egizu othoitz, Trinitate Sainduac munduan izaiten dituen laidoen erreparazionetan, onhets detzan hemen Izpiritu Sainduac egorrico deraiztan dolorezco eta za modioco sentimenduac.

Estazione batetic bertzera joaitean errraiten da:

Sancta Mater, istud agas
Crucifixi fige plagas
Cordi meo valide.

Estazionera heldu eta belhaunicatluric:

Adoramus te, Christe, et benedicimus tibi.

Quia per sanctam Crucem tuam redemisti mundum.

Ien ESTAZIONEA

Jesus hiltzerat condenatua

Contsidera zazu hemen Jesusec zein amultsuki hartzen duen arrasta bat hain zuzen contracoa, eta orhoit zaite ez duela Pilatusec choilki condenatu Jesus, bainan zuc eta bekhatoros guziec galdatzen ginduela haren heriotzea. Errozu beraz urrikiric minenarekin :

O Jesus adoragarria, ene bekhatuec hilarazi zaituztenaz geroz, egidazu othoi grazia hetaz damu gehiago, izaiteco, gaitz suerte guziez baino, eta ekharria izaiteco le-

henago hiltzerat ere bekhatu eginen dudan baino.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria.

Miserere nostri, Domine,

Miserere nostri.

Fidelium animæ per misericordiam Dei requiescant in pace.

Amen.

Sancta Mater, etc.

Adoramus te, Christe, et benedicimus tibi.

Quia per sanctam Crucem tuam redemisti mundum.

IIen ESTAZIONEA

Jesus gurutzeaz cargatua

Contsidera zazu hemen, Jesusec zein bihotz onez hartzen duen bere heriotzeco tresna latzgarria, bere soin surraskituen gainean. Horrela iracatsi nahi daucu nola hartu eta ekharri behar ditugun, nondic eta nor nahiren ganic heldu zaizkigun gurutzeac.

O Jesus amultsua! ez zinduen zuc ekharri behar gurutze hori, bainan nic bekhatoros dohacabeac. Emaduzu behar dudan animoa, zure etsemplura, bizi huntaco ne-

kheac eta atsecabeac errencuratu gabe jasaiteco : Aita on bezala zure Probidentzian nahi izan duzunaz geroz heien bidez egin dezadan bekhatuen satisfakzionea, eta ardiets zure loria.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria, etc.



IIIen ESTAZIONEA

Jesus eroria gurutzearen pean.

Contsidera zazu Jesu Calbarioco bidean. Azote eta arrantzezco khoro crudelec hambat odol galarazi zioten, non flacatua erori baitzen gurutze dorphearen pean : eta ez da altchatzen tratamenduric gogorrenac pazientziaric handienarekin jasanic baizen. Hola nahi du egin, eta guri iracatsi gure eroricoez, eta guziz bathaioco grazia galarazi darocuten bekhatuez satisfakzione egiten.

O Jesus ona ! egizu othoi, orhoit

nadin bethi bihotzminic handienarekin ene gaztetasuneco lehen bekhatuez eta disposizione sainduekin hurbil nadin heien borratzeco ordenatu duzun penitenziaco sacramendurat: barkha dietzadazu, othoi, iragan hutsac, eta egidazu grazia hetan berriz ez erortzeco.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria, etc.

IVen ESTAZIONEA

Jesusec errecontratzen du bere Ama

Contsidera zazu zein doloros behar zen izan, bai Seme Jainco harentzat, bai Ama hain maitearentzat elgar errecontratzea, Seme maite hura gaichtagin batzuez hain itsuski herrestatua den denboran, populu handi baten bistan. Hura ikhustean, zer dolore eta hersturetan etzen aurkhitu ama haren bihotza ? Nahi zukeien athera burreu heien escuetaric, ordean badaki hala behar dela egin gure salbamendua. Guziac harekin sa-

crificaturic, jarraikico zaio beraz azken hatseraino.

O dolorezco Ama! ardiets diezaguzu mendi sainduraino Jesu-Christo segitu zinduen amodio hura eta gurutzearen oinetaraino eracutsi zinduen animo hura; deusec ez nazan secula zeiharraraz Jaunaren legearen bidetic, eta apartaraz Jesu-Christo ganic.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria, etc.

Ven ESTAZIONEA

Simon laguntzen zaio gurutzearen kharreiatzen

Contsidera zazu Jesu-Christoren gu ganaco ontasuna. Mundua jasaiten duenean, ez du escas indarra gurutzearen jasaiteco: bainan nahi daucu iracatsi gure lagunetaric pairatzeco izanen ditugunen bat egiten haren sofricarioekin.

O Jesus, ene Jauna, zerorrec jasanic gurutzeric dorpheena, arinena uzten darotazu niri; egidazu, othoi, grazia neure buruaren hain etsai ez izaiteco non ez baitut ekha-

rri nahico. Hitz dautzut, Jauna, zure amorea gatic, eta zure misericordiaz baliatzeco, jasanen ditudala, errencuratu gabe, neure lagunaren ganicaco escasia eta laido guziac.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria, etc.

VIen ESTAZIONEA

Emacume debot batec chukhatzen dio begit hartea

Contsidera zazu, soldado soca hura zilhaturic, bere Nausi dibinoaren gana hurbiltzen den emacume horren animoa. Aurkhitzen du thuz, herrautsez, izerdiz eta odolez suntsitua. Hunkitua nigarretaraino, amodioac emaiten du beldur guziez gorago; hurbiltzen da Jesusen ganat, eta chucatzen dio Aingeruec eta Sainduec ikhararekin baizen beira ez diozoketen begitharte desegin hura.

O Jesus, gure Nausi eta Erregea! emadazu, othoi, emacume saindu horren imitatzeco berthutea, munduco contsiderazione guziac osticaturic, goraki eracuts dezadan nere feden mundu guziaren bistan.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria, etc.

VII^en^ ESTAZIONEA

Jesus erortzen da bigarren aldicotz.

Contsidera zazu Bictima saindu horren estatua, eroria bere sacrifiziozco egurraren pean, eta pharatua bere burreuen tratamendu crudelei: bigarren erorico hau Jesu-Christoc guretzat duen amodio handiaren froga berri bat da. Nahi daucu eracutsi berriz bekhatuan erortzeac ez gaituela etsiarazi behar, bainan bai erneago atchicarazi.

O Jesus, ene Salbatzailea! barkha dietzadatzu, othoi, berriz ere

ene bekhatuac ; borthitz nazazu zure graziaz bekhatuzco ocasionen contra ; emadazu, othoi, atzartasuna neure buruaren gainean, fermu izan nadin zure grazian.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria, etc.

VIIIen ESTAZIONEA

Jesusec contsolatzen ditu Israelgo presuna doloratu darraizconac

Miretsazu Jesu-Christoren jenerostasuna. Bere doloreez casuric egin gabe, guzia hartua da gure salbamenduaz : erraiten badiote emazte hekiei ez dezaten nigarric egin haren gainean, ah ! hortan eracusten daucu gure doloreac estimu guti lukeela, baldin gure bekhatuez nigar egiten ez badugu.

O Salbatzaile maitea ! emozu, othoi, ene bihotzari ene salbamenduaren nahi khartsu bat, auhenetan

eta penitentzian khartsuki emanaraz nezakena, merezi dezadan zure contsolazionezco hitzen aditzea, Calbarioco emazte sainduec bezala.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria, etc.

Xen ESTAZIONEA

Jesus bilhuzten dute

Contsidera zazu nolacoa zen Jesusen sofricarioa burreuec bilhuzi zutenean; arropac khentzearekin, haren zauri guziac ideki eta sarraskitan emaiten dire, eta erreberritzen dute azotezco suplizioa. Bainan dolore handiagoa zen harentzat, hambat ikhusliarren bistan estatu hartan agertzea!

O Jesus, saindutasunaren Jainkoa! gure guritasun tzar eta atsegin lizunez satisfakzione egiteco, uzten duzu zure burua hola bilhuzterat; ikhusgarri nigarrezco

horren bistan ahalcatua nere gorphutzari egin ditudan mainez, zinki deliberatzen dut zure graziarekin batean, nere sentsuac mortificatuz, egin detzakedan satisfakzione guzien egitea.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria, etc.

IXen ESTAZIONEA

Jesus erortzen da hirurgarren aldicotz

Contsidera zazu Jesus heldua menduaren gainera. Behatzen du bere etsaien errabiac sacrificatu behar duen tokira. Bekhaturat berriz erortzec, sacramenduen profanazionec, eta haren graziac eta haren odola hainitzentzat alfer izanen zirela ikhusteac hersten dute haren bihotza, jasan behar dituen tormentec baino borthizkiago.

Contsiderazione horrec arthikitzen du bain tristezia eta flakezia handian non erortzen baita, be-

re agonian bezala, begitharteaz lurrerat.

O Jesus, amodioaren bictima ! onhetsazu, othoi, hemen ene bihotz doloratuac zure bihotza hola hersten duten gaizkiez eta profanazionez egiten darotzun urrikizco oihua ; emadazu indarra izigarrikeria horien penitentziaric gogorrenez erreparatzeco ; eta egidazu grazia zu ganat bethicotz helaraz nazaketen bezala, zure dohainez baliatzeco.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria, etc.

XIen ESTAZIONEA

Jesus gurutzeari itzatua da

Contsidera zazu Jesu-Christo bere burreuei zein humilki pharatzen zaioten! uzten ditu bere escu eta oinen itzatzerat batere errencuratu gabe; senditzen ditu bere hezurrac bere lekhuetaric atheratzen, bere zainac ethentzen, bere odol guzia gurutzea behera joaiten, bere bihotza egarriac erretzen, bere indar guziac galtzen! Horrela gu gatic obedient izan nahi zen gurutzeraino, Jondoni Pauloc dioen bezala.

O ene Nausi dibinoa! ala goraki condenatzen baititutzu zure lege sainduaren alderaco ene desobedientziac! Ala sarcorra baita hemen amodio propia eta naturalezaren contresta guziac bontzutzen dituen obedientzia esoaren gainean emaiten darotazun etsemplua! Egedazu othoi grazia hortaz baliatzecoez dezadan behinere bertze nahiric izan zurea baizen.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria, etc.

XII^en ESTAZIONEA

Jesus hiltzen da gurutzean

Contsidera zazu Jesus hiltzen bi ohoinen artean, eta bere Jaincotasuna eracusten miracuiluric handienez. Azken hatsa eman duen ponduan, lurra ikharatzen da, harrocac erdiratzen, tenploco beloa urratzen, iguzkia ilhuntzen, eta hilac hobietarik phizturic ilkhitzen.

Horiec ikhusiric, capitaina obligatua da, bulharrac jozten dituelaric, aithortzerat egiazki hura Jaincoaren Semea dela.

O ene Salbatzaile maitea, ! ez dezazula, othoi, permeti, creatura

güziac, zure heriotzeaz doloratzen diren denboran, sendimendu gabe izan nadin eta esker gabe. Argizazu ene adimendua, phorrosca zatzu ene pasioneen gatheac; atzarrazu othoi, ene fede lokhartua, holaco moldez non ez dezadan behinere bistatic gal gurutze hortan hil nahi izan zaren estatua, eta hor emaiten deraiztatzun eracuspenez erregela dezadan nere bizia heriotzeraino.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria, etc.

XIIIen ESTAZIONEA

Yausten dute Jesus gurutzetic eta emaiten bere Amaren escuetan

Contsidera zazu Ama samur haren dolorea bere Semea hila ikhustean. Bere besoetan hartzen du depot sacratu hori, begira dagoco begitharte desegin eta odolztatu horri; begi iraungi, escu eta oin zilhatu hekiei. Jaincoac baizen ez dezake compreni ikhusgarri hori zer martirio zen harentzat.

O Maria! ni naiz zure bihotzminaren causa; ene bekhatuec zilhatu dute zure bihotza, Jesus

gurutzean emaitearekin ; bainan orhoit zaite, ô Maria ! ene Ama eta ene bitartecoa zarela Jaincoaren aintzinean ; damuric minena dut izanarazi daitzudan dolorez : arnegatzen dut bekhatuari, hitz dautzut zure berthutei jarraikico naizela ; zu baithan dut ene fidantzia ; lagun nazazu, othoi, orai eta ene heriotzean.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria, etc.

XIVen ESTAZIONEA

Jesus emaiten dute hobian

Contsidera zazu Jesusen gorphutza hobi hortan, eta orhoit zaite zurea orobat hil daitekela laster eta zure arima joanen dela Jainkoaren aintzinerat bere seculaco zorion edo zorigaitzezco arrastaren aditzerat.

O ene Salbatzaile Dibinoa! heriotze on bat niri obratzeko, eta hartarat preparatzen iracasteco hil zarenaz geroz, ez dezazula, othoi, permeti zure graziac alfer izan diten enetzat; ehortzkitzu hobi hortan ene gaichtakeria guziac eta ni bai-

than den creaturen ganaco jaidura guzia; ene bizia penitentzian era manic eta berthutean fermu izanic, merezi dezadan bethico zure loriaz gozatzea.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria, etc.

℣. Ora pro nobis, Virgo dolorosissima.

℟. Ut digni efficiamur promissionibus Christi.

℣. Signasti, Domine, servum tuum Franciscum.

℟. Signis redemptionis nostræ.

℣. Oremus pro Pontifice nostro N..

℟. Dominus conservet eum et vivificet eum, et beatum faciat eum in terra, et non tradat eum in animam inimicorum ejus.

℣. Oremus pro fidelibus defunctis.

℟. Requiem æternam dona eis Domine, et lux perpetua luceat eis...

OREMUS

RESPICE quæsumus, Domine, super hanc familiam tuam, pro qua Dominus noster Jesus-Christus non dubitavit manibus tradi nocentium, et Crucis subire tormentum.

Domine, Jesu-Christe, Fili Dei vivi, qui hora sexta, pro Redemptione mundi, Crucis patibulum ascendisti, et sanguinem tuum pre-

tiosum, in remissionem peccatotum nostrorum fudisti, te humiliter deprecamur, ut post obitum nostrum, januam paradisi nos gaudentes introire concedas.

Interveniat pro nobis, quæsumus, Domine Jesu-Christe, nunc et in hora mortis nostræ, apud tuam clementiam, beata Virgo Maria, Mater tua, cujus sacratissimam animam in hora tuæ passionis, doloris gladius pertransivit.

Domine Jesu-Christe, qui refrigescente mundo, ad inflammandum corda nostra tui amoris igne in carne beatissimi Francisci passionis tuæ sacra stigmata renovasti, concede propitius ut ejus meritis et precibus, crucem jugiter feramus et dignos fructus pœnitentiæ faciamus.

Omnipotens sempiterne Deus, miserere famulo tuo Pontifici nostro N... et dirige eum secundum tuam clementiam in viam salutis æternæ, ut, te donante, tibi placita cupiat, et tota virtute perficiat.

Deus, veniæ largitor et humanæ salutis amator, quæsumus clementiam tuam ut nostræ congregatio-

nis fratres, propinquos et benefactores, qui ex hoc sæculo transierunt, beata Maria semper Virgine intercedente, cum omnibus Sanctis tuis, ad perpetuæ beatitudinis consortium pervenire concedas. Per Dominum nostrum Jesum Christum, etc.

Aphezac cantatzen du hirur alhiz: Parce, Domine, parce populo tuo.

Populuac ihardesten du orobat: Ne in æternum irascaris nobis.

Cantariec: Pie Jesu Domine, dona eis requiem.

Populuac: Sempiternam.

Lehen cantariac: Jube, Domine benedicere.

Aphezac: Benedicat nos Dominus noster Jesu-Christus, qui pro nobis flagellatus est, crucem portavit et fuit crucifixus. ℟. Amen.

Elizarat joan ez ditakenean, edo eriz, edo urrunegiz, edo destenore delakotz, edo bertze zerbeiten gatic, orduan non nahi estazioneac egin ditazke, eta indulientziac irabaz. Huna nola: Hartaracotzat benedicatua den gurutzefica bat escuan, delaric erraten dire hogoi Gure Aita, Agur Maria eta Gloria

Patri: lehen hamalauac, hamalau, estazionen orde, bertze bortz Jesus Jaunaren bortz zaurien ohoretan; eta azkena Aita Sainduarentzat.

JAUN APHEZPIKUAREN

HARTZECO MOLDEA

Jaun Aphezpikua hurbiltzen denean herrirat, nahi badu izan solanelki errezibitua, Jaun erretora supelizaz eta capaz beztituric badohoco bertze Elizaco jendeekin, gurutzea aintzinean duelaric eta populua ondoan. Igurikitzen du herriaren sargian: eta heldu denean Jaun Aphezpicua, ematen dio gurutzea besarcatzera eta gero cantatzen da:

Ant. Sacerdos et Pontifex et ivirtutum opifex, pastor bone in populo, sic placuisti Domino.

Eta bidean joaitean: Benedictus *edo* Magnificat.

Elizan sartzean ematen zaio ur benedicatua eta isentsua: Laguntzen da aldare nausiaren aintzinera eta han belhaunicatu denean Jaun Aphezpicua eta othoitzean dagoela-

ric, haren ganat buruz cantatzen du Jaun erretorac.

℣. Protector noster, aspice, Deus.

℟. Et respice in faciem Christi tui.

℣. Salvum fac servum tuum.

℟. Deus meus, sperantem in te.

℣. Mitte ei, Domine, auxilium de sancto.

℟. Et de Sion tuere eum.

℣. Nihil proficiat inimicus in eo.

℟. Et filius iniquitatis non apponat nocere ei.

℣. Domine, exaudi orationem meam.

℟. Et clamor meus ad te veniat.

℣. Dominus vobisdum.

℟. Et cum spiritu tuo.

ORAZIONEA

DEUS humilium visitator, qui eos paterna dilectione consolaris: prætende societati nostræ gratiam tuam, ut per eos cum quibus habitas, tuum in nobis sentiamus adventum. Per Christum Dominum nostrum.

℟. Amen.

Orazionearen ondotic cantatzen da Elizaco Patroinaren antifona, verseta eta orazionea. Gero emaiten du Aphezpicuac benedizionea.

Tabernacle saindua idekitzen balimbada, cantatzen da, Tantum ergo.

Comunione saindua hartzen dutenec Aphezpicuaren escutic, emaiten diote lehenic musu haren errez-tunari.

CONFIRMAZIONEA

Confirmazioneco sacramendua hartu behar dutenac belhaunico direlaric, erraiten dire segidan diren othoitzac.

Spiritus Sanctus superveniat in vos et virtus altissimi custodiat vos a peccatis.

℟. Amen.

℣. Adjutorium nostrum in nomine Domini.

℟. Qui fecit cœlum et terram.

℣. Domine, exaudi orationem meam.

℟. Et clamor meus ad te veniat.
℣. Dominus vobiscum.
℟. Et cum spiritu tuo.

OREMUS

OMNIPOTENS sempiterne Deus, qui regenerare dignatus es hos famulos tuos ex aqua et Spiritu Sancto, quoque dedisti eis remissionem omnium peccatorum : emitte in eos septiformem Spiritum tuum Sanctum Paraclitum de cælis.

Amen.

Spiritum Sapientiæ et Intellectus. ℟. Amen.

Spiritum Consilii et Fortitudinis. ℟. Amen.

Spiritum Scientiæ et Pietatis. ℟. Amen.

Adimple eos spiritu Timoris tui, et consigna eos signo Crucis Christi, in vitam propitiatus æternam. Per eumdem Dominum, etc. ℟. Amen.

Apezpikuac egiten du Crisma sainduaz khurutzearen seinalea copetan, erranez :

N., signo te signo Crucis et confirmo te Chrismate salutis : In

nomine Patris, et Filii et Spiritus Sancti. ℟. Amen.

Pax tecum.

Casu egin behar da copetaren ez hunkitzeaz, aphez batek chucatu artino.

Aphezpicuac bere escuac garbitzen dituenean, aldecoec errraiten dute antifona hau:

Confirma hoc, Deus, quod operatus es in nobis; a templo sancto tuo, quod est in Jerusalem.

℣. Gloria Patri, etc.

℟. Sicut erat, etc.

Confirma hoc Deus, etc.

Eta oraino belhaunicatuac daudelaric:

℣. Ostende nobis, Domine, misericordiam tuam.

℟. Et salutare tuum da nobis.

℣. Domine, exaudi orationem meam.

℟. Et clamor meus ad te veniat.

℣. Dominus vobiscum.

℟. Et cum spiritu tuo.

ORAZIONEA

DEUS, qui Apostolis tuis Sanctum dedisti Spiritum, et per eos eorumque successores cœteris fidelibus tradendum esse voluisti, respice propitius ad humilitatis nostræ famulatum: et præsta ut eorum corda, quorum frontes sacro Chrismate delinivimus, et signo sanctæ Crucis signavimus, idem Spiritus Sanctus in eis superveniens templum gloriæ suæ dignanter inhabitando perficiat. Qui cum Patre et eodem Spiritu Sancto vivis, etc. ℟. Amen.

Eta gero

ECCE sic benedicetur omnis homo qui timet Dominum.

Confirmatuac zeinatzen direlaric

BENEDICAT vos † Dominus ex Sion, ut videatis bona Jerusalem omnibus diebus vitæ vestræ, et habeatis vitam æternam. ℟. Amen.

Azkenean confirmatu diren guziec erran behar dute:

Credo... Pater... Ave...

Edo Sinhesten dut... Gure Aita... .. Agur Maria...

Cantatzen da gero Libera me, *purgatorioco arimen fagoretan.*

Jaun Aphezpicua Elizatic atheratzean, canta diteke Te Deum *edo* Magnificat *edo Jaun Aphezpicuac nahi duena.*



GIRISTINOAC

Egun guziez egin behar dituenac

Orhoit adi baducala egun

Jainco bat goresteco;

Eta bihotz oroz maithatzeco;

Jesu-Christo imitatzeco;

Birjina Maria, aingeru eta saindueki ohoratzeco;

Eta gogotic othoizteco;

Arima bat salbatzeco;

Gorphutz bat zaphatzeco;

Berthuteac praticatzeco;

Zerua irabazteco;

Ifernua ebitazeco;

Eternitatea gogoan hartzeco;

Dembora baliaaratzeco;

Protsimoa lagunzteco;

Mundua higuintzeco;

Pasioneac zehatzeco;

Debruac bentzutzeco;

Menturaz, heriotzea pairatzeco;

Eta jujamendua, ukhaiteco, seculacotz!

BESTA ALDACORRAC

Urthea	Hauste	Phazco	Salbatore	Mendecoste	Bestaberri	Mendecoste ondoco igandeac	Arendoa
1926	Otsai 17	Aphir 4	Maiat 13	Maiat 23	Erear 3	26	Hazil. 28
1927	Martch 2	Aphir 17	Maiat 26	Erear 5	Erear 16	24	Hazil. 27
1928	Otsai 22	Aphir 8	Maiat 17	Maiat 27	Erear 7	26	Abend. 2
1929	Otsai 13	Martch31	Maiat 9	Maiat 19	Maiat 30	27	Abend. 1
1930	Martch 5	Aphir 20	Maiat 29	Erear 8	Erear 19	24	Hazil. 30
1931	Otsai 18	Aphir 5	Maiat 14	Maiat 24	Erear 4	26	Hazil. 29
1932	Otsai 10	Martch 27	Maiat 5	Maiat 15	Maiat 26	27	Hazil 27
1933	Martch 1	Aphir 16	Maiat 25	Erear 4	Erear 15	25	Abend. 3
1934	Otsai 14	Aphir 1	Maiat 10	Maiat 20	Maiat 31	27	Abend. 2
1935	Martch 6	Aphir 21	Maiat 30	Erear 9	Erear 20	24	Abend. 1
1936	Otsai 26	Aphir 12	Maiat 21	Maiat 31	Erear 11	25	Hazil. 29
1937	Otsai 10	Martch28	Maiat 6	Maiat 16	Maiat 27	27	Hazil. 28
1938	Martch 2	Aphir 17	Maiat 26	Erear 5	Erear 26	24	Hazil. 27
1939	Otsai 22	Aphir 9	Maiat 18	Maiat 28	Erear 8	26	Abend. 3
1940	Otsai 7	Martch24	Maiat 2	Maiat 12	Maiat 23	28	Abend. 1

CAUSI-BIDEA

	Plamac
Goizeco othoitza	5
Jesusen izen sainduaren litaniac	10
Arratseco othoitza	20
Andredena Mariaren litaniac ..	26
Ongi cofesatzeco moldea	34
Comunione saindua	47
Othoitz baliosa	52
San Thomasen othoitza	53
Christoren arima	54
Othoitz indulientzia dunac	55
Meza sainduco othoitzac	59
Mezaren akhabantzaco cantica ..	77
Angelus, escuaraz	78
Besta printzipaletaco ofizioac ..	79
Andredena Mariaren meza	79
Eguerri eguneco meza	81
Gauerdico mezaco ebanjelioa	85
Argitzeco mezaco ebanjelioa ...	87
Trufaniaco meza	88
Anontziazioneco ebanjelioa	92
Erramuco meza	93
Jesu-Christo gure Jaunaren Pasionea	95

Phazco eguneco meza..... 111
J. Salbatoreco meza 114
Mendecosteco meza 118
Besta berrico meza 124
J. Joani-Batistaren meza 130
J. Petri eta Pauloren meza 134
Andredena Maria aboztucoaren meza 138
Andredena Maria burujilecoaren meza 142
Andredena Maria Doloretacoaren meza 143
Omia sainduco meza 153
Hilen ehorzteco meza 158
Elizen dedicazioneco meza 167
Andredena Maria Abendocoaren meza 171
Bezperetaco psalmoac eta himnoac 175
Sacramendu Sainduaren bezperac 184
Andredena Mariaren bezperac 188
Hilen bezperac 192
Sacramendu sainduaren bisitaco othoitzac 214
Sacramendu sainduaren litaniac . 216
Sacramendu sainduari othoitza . 220
Jesusen bihotz sacratuaren litaniac 222
Jesusen bihotz ari contsecratzeko othoitza 226

Arrosarioaren cantica adorazioneco 228
Arrosarioaren hamabortz misterioac 231
Orhoit zaite Mariari 236
San Josepen litaniac 237
Urrian San Josepi egiten zaion othoitza 240
San Josepi othoitza heriotze on baten galdatzeco 241
San Josepen zazpi atsegabeac eta alegrantziac 243
San Leonen litaniac 249
San Leoni othoitzac 253
San Antonio Padoucoaren litaniac 256
San Antoniori othoitz guziz indartsua 258
Sainduen litaniac 261
Gurutzearen bidea 270
Jaun Aphezpicuaren hartzeco moldea 303
Confirmazionea 305

Psalmoac

Beati omnes 185
Beatus vir qui timet 177
Confiteor tibi...in consilio 176
Credidi 184
De profundis 193
Deus, in adjutorium meum 175
Dilexi quoniam 192
Dixit Dominus 175
In exitu Israel 179
Lætatus sum 188
Lauda Jerusalem 185
Laudate Dominum, omnes gentes 193
Laudate pueri 178
Magnificat 182
Memento Domine 194
Nisi Dominus 189

Himnoac

Ave, Maris stella 191
Creator alme siderum 195
Deus, tuorum militum 202
Exsultet orbis gaudiis 201
Iste confessor 203
Jam sol recedit 201
Jesu Redemptor omnium 196
Lucis Creator optime 181
Pange, lingua 186

Salutis humanæ sator 199
Veni Creator 199
Vexilla Regis 198

Antifonac

Alma redemptoris..... 205
Ave Regina Cœlorum 205
Regina cœli 206
Salve, Regina 206

Litaniac

Sacramendu sainduarenac 216
Jesusen izen sainduarenac 10
Jesusen bihotz sacratuarenac .. 222
Andredena Mariarenac 36
Sainduenac 261
San Josepenac 237
San Leonenac 249
San Antonio Paducoarenac 256

Stabat Mater 146
Dies iræ 160
O salutaris 207
Tantum ergo 207
Ave verum 208
O sacrum 208

Ecce panis 208
Adeste fideles 209
O filii 210
Te Deum 212
Egun guzietaco giristinoaren egin-
bideac 311
Beota aldacorrac 312

Impr. H. Proost & Cie, Turnhout (Belgique)